

Egoera larrian

Josefina Arregi klinikako langileek horrela daudela azaldu dute / 9



"Pertsonen bizitzak erdigunean jartzeko jendarte berria" aldarrikatzen mobilizazio ugari / 6-7

Beste leku batean bizitzen ikasten ari dira 14 eta 15 urteko Sakanako zazpi ikasle / 2-3

III. Arbizuko Zumbathon solidarioa eta haur lasterketa igandean, Asfape elkartearen alde / 19

Irurtzun pilota elkarteak irabazi zuen Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketa / 20

Irurtzango Antzerki Tailerrak 'Mujeres de casa vieja' antzezlanaren eginen du asteburuan / 21

Sara Mazkiaran altsasuarra zuzendari laguntzailea, oso gutxi ezagutzen den lanbidea / 23



Sakanaoptika
optometriko - audimetriko - kontaktogintza

2X1

GRADUATUTAKO
BETAURREKOETAN



Akitanian ikasten ari diren gazteak. Lakuntzarra falta da.

Eneida Carreño Mundiñano eta Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

Akitaniako kultura ezagutu eta frantsesa ikasi. Helburu horrekin Sakanako zazpi gazte Mauleko eta Donibane Garaziko ikastetxeetan ikasten ari dira ikasturte honetan. Frantsesa irakasgaia ikasten zuten Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutuan eta, horregatik, Nafarroako Gobernuko Ikasturtea Frantzian programan parte hartzeko aukera izan dute. Zazpi gazteek ikasturte honetan bizitzen ari diren esperientziaz hitz egin dute Belexe irrastian (FM 107,3 eta guaixe.eus).

2013-2014 ikasturtean jarri zuen martxan Nafarroako Gobernuak Akitaniako ikastetxe batean frantsesean murgiltzeko ikasturteko programa. DBHko 1go, 2. eta 3. mailako ikasleek parte har dezakete. Hortaz, ikasleak Akitaniako ikastetxe batean

Beste leku batean bizitzen ikasten

Sakanako zazpi gazte Mauleko eta Donibane Garaziko ikastetxeetan ikasten ari dira ikasturte honetan. Frantsesa hobetzera joan dira, baina askoz gauza gehiago ikasten ari dira. Belexe irrastian (FM 107,3) esperientziaren berri eman dute

ikasiko dute eta bertako internatu batean biziko dira astelehenetik ostiralera. Bertako kultura eta frantsesa ikastea dira, besteak beste, programaren helburuak.

Nafarroa osoko 250 ikasle inoruk egin zuten 2018-2019 ikas-

SAKANAKO ZAZPI IKASLE AKITANIAKO IKASTETXEETAN IKASTEN ARI DIRA URTE HONETAN

turtean Akitanian ikasteko eskaera, eta 90 plaza zeuden. Sakanako zazpi ikasleek lortu zuten leku bat: Achraf Sbai 14 urteko etxarriarra, Markel Arakama 15 urteko altsasuarra, Jon Mintegi 14 urteko etxarriarra, Aiman Sour 14 urteko etxarriarra, Oiha-

ne Sayas 14 urteko altsasuarra, Leire Sayas 15 urteko altsasuarra eta Maddi San Sebastian 14 urteko lakuntzarra astelehenetik ostiralera Maulen bizi dira, Markel izan ezik, Donibane Garazin baitago. Ikasturte honetan bizitzen ari direnari buruz hitz egin dute Belexe irrastian (FM 107,3 eta guaixe.eus).

Markel 7 urterekin hasi zen frantsesa ikasten. Bere osaba frantsesa da eta hizkuntza ikastera animatu zuen, Markelek berak azaltzen duen bezala. Esperientziak, beraz, senideekin frantsesez hitz egiteko aukera eman dio. Iparralden ikasten ari diren beste sakandarrak, aldiz, institutuan hasi ziren frantsesa ikasten. DBH 1go mailan hasi ziren, eta aurreko ikasturtean, 2. maila egiten ari zirenean programan parte hartzeko aukera sortu zitzaizen. "Irakasleek animatu gintuzten".



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza departamentuak sustatutako programa da, eta parte hartzeko baldintzak kurrikulum ofizialean frantsesean matrikulatuta, irakasgaien aurreko ikasturteko 7 baino gehiago izatea eta ikasturteko batz besteko notan ere 7 bat baino gehiago izatea dira. Lehenengo Hezkuntako 6. mailan, eta 1go eta 2. mailan daudenekin egin dezakete eskaera hurrengo ikasturtean joateko. Izan ere, Frantziako hezkuntza sistemaren arabera bigarren hezkuntza bi etapatan banatzen da eta lehenengoa 15 urterekin amaitzen da, hau da, hemengo DBH 3. mailaren baliokidea dena.

Ikasturtea hasi bezain laster hasi ziren zazpi sakandarrek Mauleko College Sant François-en eta Donibane Garaziko College Mayorgan. Astelehenetan goizean goiz autobusa hartzen dute Iruñean eta ostiral arratsaldera arte han pasatzen dute astea. Barnetegi batean bizi dira, eta asteburuak etxean pasatzen dituzte. Barnetegian “Nafarroako jendea dago, gehienbat”, gazteek adierazi duten bezala.

Hasiera guztiak bezala, lehenengo egunak zailak izan ziren. Gainera, anekdotarekin hasi zuten ikasturtea sakandarrek: “lehenengo egunean berandu iritsi ginen eskolara eta denak guri begira gelditu ziren. Ez genekien frantsesa eta dena desberdina iruditu zitzaigun”. Izan ere, nahiz eta frantsesa ikasten ari eta “hitz batzuk gaztelanaren antzekoak diren”, hango frantsesa “desberdina” dela esan dute gazteek. “Askok azkarrago hitz egiten dute”. Hortaz, “hasieran” esperientzia gogorra izan zela aitortu dute.

Sei astez klasera doaz eta gero bi festa dute. Hori da Frantziako hezkuntza sistema hemengoarekin alderatuta beste desberdintasunetako bat. Hala ere, kontrari, “beranduago bukatzen” dutela esan dute gazteek. Ekain bukaerara arte egon beharko dira Maulen eta Donibane Garazin ikasten.

FRANTSESAREN ULERMENEA MURGILTZEA DA PROGRAMAREN XEDEA



Gazteak Maulen. UTZITAKOIA



Akitanian ikasten ari diren gazteek Beleixe irratian kontaktu zuten esperientzia.

Frantsesaren ulermena garatzeko ikaskuntza esperientziak aurrera eramatea da Hezkuntza Departamentuak garatzen duen programaren helburua. Beraz, ikasleek dagokien ikasmilako ikasketak egiten dituzte, bertan, eta frantsesez. Irakasgaiak “antzekoak” direla esan dute programan parte hartzen duten sakandarrek, baina fisika irakasgaiarekin, esaterako, lehenago hasten direla: “guk urte bat generaman fisikarekin, eta haiek sei urte”.

Gazteek esaten dutenaren arabera, programaren helburuak betetzen ari dira. Izan ere, guztiak frantses asko ikasten ari direla diote. Gainera, lagun berriak egin dituztela ere aipatzen dute. Hitz egiteko erraztasuna hobetu dutela nabarmentzen dute. Kultura eta gastronomia berria ezagutzeko aukera izan dutela ere aipatu dute gazteak, baita “beste leku batean bizitzen” ere.

Kultura ezberdinera egokitu behar izan dira. Aldaketa nabarmenenak ordutegietan eta gastronomian daude. Gazteek azaldu dutenez, ordutegiekin “hilabete batean moldatzen” ziren, aldiz, janariarekin arazo gehiago izan dituzte: “hemengoarekin alderatuta desberdina da, txarragoa”.

Maule eta Donibane Garazi Euskal Herriko iparraldea izan arren euskal giro gutxi nabaritu dute ikasle sakandarrek. Klasean ez dute euskara entzun, “nik uste ez dakitela”, eta kalean kartelen bat topatu dute Maulen. Donibane Garazin, Markelek azaldu duenez, lagunaren artean euskara gehiago entzuten da.

Frantsesean murgiltzeko ikasturteko programa 2013-2014 ikasturtean jarri zuen martxan Nafarroako Gobernuko Hezkuntza sailak. Lehenengo urte horretan 57 plaza izan ziren eta 118 ikasle eman zuten izena. Aurtengo ikasturterako 245 ikasle eman zuten izena 90 plazatarako. Hortaz, urtetik urtera ikasle gehiago daude Frantziako estatuko ikasketetean ikasteko prest. Izan ere, “esperientzia polita, dibertigarria eta ezberdina” dela esan dute Sakanako gazteek, eta programan parte hartzera animatzen dituzte ikaskideak. Gobernuak eskaintzen duen programatik kanpo ere “norberaren kabuz” joateko aukera ere dagoela azaldu dute gazteek.



ASTEKOA

ZOILA BERASTEGI MARIÑELARENA

Greta Thunberg-en negua

Neguko txapel eta eskularruak armairuan daude, txukun-txukun, erabilera noiz emango zain. Aldiz, leihoak ireki eta ezin jakin zein urtarotan gauden, ezin jakin zein ote egokiago: mahuka motza ala luzea? Egia da eguzki goxoa gustura hartzen dela, baina joan berri zaigun otsaila zuria eta hotza zen lehen, neguaren aurpegi gordinena maiz, eta aurten zelaiak eta zuhaitzak loratzen ikusten ari gara, udaberria bailitzan.

Azken aste hauetan iparraldeko herrialdeetatik etorritako "School Strike for Climate" gazte mugimendua haize ufada freskoa izan da, eta nik behinik behin eskertu dut negu epel honetan. Zer esana ematen ari da, eta jakin badakigu zer esanetik zereginera tarte bat egon badagoela, baina belaunaldi gatazka bat jarri du agerian. Ostiraletan ikasgelak utzi eta kaleak hartu dituzte hainbat ikaslek, Gretaren adibideari jarraituz, Kapitalismoak planeta hiltzen duela salatzen. 16, 17, 18 urteko gazte horiek, zeintzuk

AURTEN ZELAIK ETA ZUHAIK LORATZEN IKUSTEN ARI GARA, UDABERRIA BAILITZAN

indibidualista, berekoi eta asozializat ditugun, ikasgai galanta ari zaizkigu ematen 80ko hamarkadako kolektibotasunaren nostalgiko garenoi. Beren bizitza labor hori soinean daramatelarik eta beren etorkizun eskubidea

ukabletan gordeta, muturren aurrean jarri digute gizateriak duen arazorik larriena: Lur planeta bizileku izateari uzten ari dela.

Martxoaren 8-a pasatu berri den honetan, inoiz baino ozenago, bizitzak erdigunera: Bizitza bera erdigunera, etorriko diren seme-alabek ere oraina izan dezaten. Hortaz, birpentsa dezagun aurrerantzean, zeri deitzen diogun "eguraldi ona".

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

OBJEKTIBOTIK



Guaixe mobila Altsasuko kaletik

Guaixeren kotxe ofiziala aurkitu dugu Altsasuko txoko batean. Guaixe astekaria

banatzen duen kotxe fantastikoa ostiraletan ikus dezakegu kaleetatik barna. Ez


da David Hasselhoff gidatzen egongo, baina banatzaile jator bat seguru izango dela.

Gurekin harremanetan jartzeko

618 882 675



GUAIXE



guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
gk@gkomunikazioa.eus

Administratzailea:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Patxi Flores Lazkoz

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Parlamentariak bertatik bertara ezagutu dute SPE

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia Garapeneko Batzordekoak Sakanako Garapen Agentziako kideekin elkartu ziren herenegun, baita Adania eta Eseki enpresakoekin. Sakanako Plan Estrategikoaz duten iritzia eman zuten batzuk eta besteek

ARBIZU / LIZARRAGA

Sakanako Garapen Agentziako (SGA) ordezkariak Nafarroako Parlamentuan ordezkariak duten taldeekin elkartu ziren urte hasieran. Bilera haietan Sakanako Plan Estrategikoaren (SPE) orain arteko balorazioa eta hura berraztertzeke zabalik dagoen prozesuaren berri eman zieten. Plana onartu zenean ere halako bisitak egin zituzten ibarreko eragileek. Urte hasieran egindako bisita horietatik sortu zen Nafarroako Parlamentuko Ekonomia Garapenerako Batzordea Sakanan biltzeko aukera.

Batzordekide diren Carmen Segura (UPN), Rafael Eraso (Geroa Bai), Adolfo Araiz (EH Bildu Nafarroa) eta Guzman Garmendia (PSN) Utzugane, Sakanako Garapen Gunera herenegun etorri ziren. SGako langileek eta Sakanako Mankomunitateko presidente David Oroz Alonsok egin zieten harrera. Azken horrek planaren eta berrikuspen prozesuaren nondik norakoak labur azaldu zizkien. Orain arte egindakoaz ibarrean balorazio ona egiten dela azaldu eta aurrera begirako erronkei erreparatu zieten. Sakanan identifikatutako erronkak zein diren azaldu, horiek lortzeko bideak azaldu eta lan ildoen berri eman zieten parlamentariari. Mahai in-



Parlamentariak Sakanako ordezkariarekin bilduta. SGA

SAKANAKO PLAN ESTRATEGIKOAREN BERRIKUSPENA ASTE SANTURAKO EGINA NAHI DUTE

guruan haien ekarpenak, batez ere, digitalizazioaren arloan izan ziren. SGA eta Sakanako zenbait enpresa sustatzen ari diren DINABIDE proiektuaren beharra eta egokitasuna aitortu zuten ere (Inasa zenaren bulegoan digitali-

zaziora begirako zentroa egingen da).

Lekukotzak

Ibarreko ordezkariak ez zuten erakundeen ahotsa entzun nahi izatea soilik. Horregatik, SPE indarrean dagoenetik harekin bat egin duen Talleres Arania enpresako kide bat izan zen bileran. Sakanako ekoizpen sarearen eredu izan daitekeen enpresako ordezkariak SPEri buruz zuten iritzia parlamentariari eman zien. Bere esperientziaren berri eman eta aurrera begira dituzten

erronka nagusiak azaldu zizkien: digitalizazioa eta trebatutako eskulana, besteak beste.

Utzuganetik Lizarragara joan ziren guztiak. Han kontzejuak sustatutako argindar mikrosarea bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten parlamentariak. Eseki enpresako kide batek han bertan parlamentariari azalpenak eman zizkien. Ez soilik mikrosareaz, baita ibarreko lau enpresak eta CENER ikerketa zentroaren artean garatzen ari diren e-HIERA proiektu estrategikoaren inguruan ere.

Hurrengo pausoak

SGAko Iker Manterolak azaldu digunez, parlamentariak egindako ekarpenak SPE berrikuskerako idatzian gehituko dituzte. Txosten hori Sakanako Sozio-ekonomia Behatokiaren hurrengo bileran aurkeztuko dute. Han oniritzia jasoz gero, dokumentua Nafarroako Gobernuaren Ekonomia Garapen Departamentuko buruei aurkeztuko liekete. Hori guztia Aste Santuaren aurretik egitea nahiko lukete.

Indarrean dagoen plan estrategikoa 2014 eta 2020 urteen arteko aldia hartzen du. Orozek azaro akaberan azaldu zuenez, "azken urte hauetan egindako lanaren eta lortutako emaitzen balorazio globala egiteko garaia iritsi da". Berrazterketa has-teko, Sakanako Sozio-ekonomia Behatokia biltzea izan zen aurreneko eginkizuna. Han orain arteko lanaren balorazioa egin eta azken bi urteetan eraginkortasuna hobetzeko plana berraztertu zuten. Planaren inguruko behar, erronka eta proposamenak jasotzeko, herrietan eta Sakanako garapenean inplikaturako agenteekin bilerak egin zituzten.

Bertako euskarazko hemeroteka liburutegian

Hilaren 29ra arte Guaixe hilabetekariak eta Oixe astekariak kontsultatzeko aukera izanen da

ALTSASU

Urdiaindik eta Ziorditik pasa ondoren, astelehenaz geroztik Altsasuko liburutegira sartu direnek Guaixeren hemeroteka ibiltariarekin egin dute topo. Sarrera ondoan propio prestatutako standa jarri du Guaixe fundazioak. Han eseri eta lasai asko kontsultatu daitezke 1994 eta 2002 artean argitaratu ziren Guaixeren hilabetekari guztiak. Baita 2001 eta 2003 urteen arteko Oixe astekariak ere.

Aleak patxada ederrean ikusi eta denboraren makina hartzeko aukera ederra da, garai bateko gertaerak gogoratu, eta janzkerak eta orrazkerak ikusi eta, zergatik ez, zure burua argazkiren batean identifikatzeko aukera eskaintzen du hemeroteka ibiltariak. Hala bada, zure burua topatu baduzu fundaziotik egiten dizugun gonbidapena honakoa da: Guaixe edo Oixe horrekin argazkia egin eta sare sozialetan #batzengaituena edota #Guaixe25 traolekin partekatzea. Nahi duen guztiak standean dagoen photocallarekin argazkia egiteko aukera du. Hala eginez gero, fundaziotik partekatzea eskertuko genizuke. Aleren bat nahi duenak admin@guaixe.eus e-postara eskaera idatzi dezala.

GOIZERO 10:00-12:00
EGUN ON SAKANA

10:00 Prentsa eta eguraldia

10:15 Batetik bestia

10:20 Eguneko albisteak

10:45 Hizketan

11:20 Sarea: Aralar eta Karrape irratikoekin

11:55 Agurra

107.3 FM
beleixe

DENBORALDI BERRIAI

ZUZENEAN

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE
ENTZUTEKO
GUAIXE.EUS

"Pertsonen bizitzak erdigunean jartzera"

"Eraldaketa sozial eta politikorako haziak" landatu ziren greba feministarekin. Deitzaileek euren burua "alternatibak eraikitze eta konfrontaziorako fronte" gisa ikusten dute. Ibarrean mobilizazio ugari izan ziren pasa den ostiralean

SAKANA

Greba feminista despeditzeko Sakanako manifestazioa Altsasun egin zen eta 4.000 bat pertsona elkartu ziren. Haren akaberan Sakanako mugimendu feministako kideek argitu zuten, joan den urtean Euskal Herrian 7 emakumezko erail zituzten. Haiez aparte hainbat arrazoiengatik greban emakumezko asko falta zirela gaztigatu zuten: "zuen-gatik gaude gaur gu hemen".

Greba feministaren ardatzeta-ko bat doako nahiz soldatapeko zaintza-lanak izan dira. "Zaintza-lanek eremu pribatua, etxeetan, jarraitzen dute eta, nagusiki emakumeak arduratzen dira horietaz. Gure zaharrak zaintzeko, gainera, askotan emakume migratzaileak kontratatzen dira, esplotazio lan baldintzetan". Mugimendu feministak "azaleko keinuak" baino, "politika feminista ausartak exijitu" zituen: zaintza-sistema publiko eta doakoa nahi dugu! Emakumeok dohainik egiten ditugun lanak sozialki berrantolatzea aldarrikatzen dugu!"

Lanaz

Bestetik, "lanaren kontzeptu patriarkal-kapitalista eraldatzea" aldarrikatu zuten. Gogorazi zuten, erretiro-pentsio baxuek jasotzen dutenen artean % 80 emakumezkoak dira. Aldi berean, "kontsumoan oinarritzen den jendarte-eredua irauli nahi dugulako, Sakanako hainbat herritan bazkari autogestiona- tuak egin ditugu". Emakumezko gazteek lan-baldintza prekarioak jasan eta hezkuntzaren pribatizazioaren kaltetu nagusiak dira nabarmendu zuten.

Sakanako feministek salatu zuten, "lan merkatua oihan basatia da emakumezkoendako: langabezia, azpi enplegua, behin-behineko kontratuak, sexu jazarpena, soldata arrakala, kristalezko sabaia..." Horiek guztiak



Informazio pikete feminista Altsasun barna ibili zen.

"EMAKUMEZKOOK DOHAINIK EGITEN DITUGUN LANAK SOZIALKI BERRANTOLATU!"

salatzeko langile mugimenduan eta sindikatuarekin dituzten aliantzak nabarmendu zituzten.

Euskal Herriko balorazioa

Euskal Herriko mugimendu feministako kideek grebaz egin-dako balorazioan gaineratu duenez, "urrats handia eman dugu baina urrun gaude gure helburuetatik. Urrun gaude emakumezko dohainik egiten ditugun lanak sozializatzen. Beraz, grebak azaleratzen dituen gatazketan sakontzen jarraituko dugu". Eta gaztigatu dutenez, "Euskal Herriko erakunde nagusietan aurrera eramaten diren politikek merkatuaren etekinen menpean jarraitzen dute eta emakumezko langileen esplotazioa indartzen dute". Gaineratu zuten, "egun, Euskal Herrian dugun familia eredua logika patriarkalean erakitzen da, zaintza lanak femini-

zatu eta pribatizatuz, eta bereziki emakume arrazializatu nahiz migranteon esplotazioan oinarrituz".

Mugimendutik administrazioan ardura duten politikariei eta enpresetako buruei zuzendu zaie: "ez diegu keinu simboliko gehiagorik onartzen, gure aldarrikapenak arduraz entzun eta horiek gauzatzeko konpromisoak har ditzatela nahi dugu. Ekintza, politika eta aldaketa feminista errealak nahi ditugu, ez dugu onartuko kapitalaren edota gizon batzuen interesek jarri dezaket inongo toperik". Mugimendu feministak beste behin bizitzak erdigunean jarriko dituen paktu sozial berri bat eskatu du.

Mobilizazioak

Greba feminista zela eta Irurtzen, Uharte Arakilen, Lakuntzan, Arbizun, Etxarri Aranatzen, Iturmendin, Urdiainen, Altsasun eta Ziordian kontzentrazioak egin ziren joan den ostiral eguerdian. Jendetsuena Altsasun izan zen, 1.800 bat emakumezko elkartu zituen kalejira. Arratsaldeko eskualde manifestazioan 4.000 bat pertsona elkartu ziren Altsasuko kaleetan.



LAKUNTZA - UTZITAKOA



LIZARRAGABENGOA - UTZITAKOA



ARBIZU - UTZITAKOA



ITURMENDI - UTZITAKOA



ETXARRI ARANATZ - UTZITAKOA



IRURTZUN - UTZITAKOA



URDIAIN - UTZITAKOA



UHARTE ARAKIL - UTZITAKOA



ALTSASU

Arduraz ekoiztutakoa, arduraz kontsumitu

Errigoraren "uzta eskutik eskura" kanpainan eskaera martxoaren 22ra arte egin daiteke

SAKANA

Errigoraren kanpainaren bosgarren edizioa da aurtengoa. Nafarroako Erriberako ekoizleen oliba-olio birjina, kontserbak (pikillo piperrak, zainzuriak, orburuak, barazki menestra, potxak, tomate frijitua eta kremak) eta arroz sorta konbentzionalak edo ekologikoak eskuratzeko aukera eskaintzen du ekimenak kanpaina horren bidez. Baita Errigoraren kamisetak ere. Kanpainarekin kontsumo arduratsua sustatu nahi du Errigorak, "Erriberako lehenengo sektorea eta tokiko elikagaien industria txikia bultzatzeko pausuak emanez. Eta, nola ez, euskal lurraldeen arteko harremanak elikatzen".

Nafarroan bertan ekoiztutako produktu sorta zabala eskaintzen ditu. Errigoratik azaldu dutenez, horrek guztiak eragiten du berotegi efektua sortzen duen karbono isuriak murriztea, paisaia mantentzea, ekonomia bertokirratzea, auzolana elikatzea, ekoizleen, kontsumitzaileen arteko distantzia laburtzea eta biendako zuzenak diren prezioak adostea, burujabetza elikatzea, elikadura sistema gure esku izan daitezen pauso txikiak ematea eta komunitatea elikatuz.

www.bertsozale.eus



Antolatzailea



Nafarroako Bertsolari Txapelketa 2019

IRUÑEA

Martxoak 23. 17:00etan, Anaitasuna kiroldegian

Ate irekieraz: 15:30ean



Eneko Lazkoz Martínez, Xabier Terreros Gartzia, Joanes Illarregi Marzol, Eneko Fernandez Maritxalar, Julio Soto Ezkurdia, Xabat Illarregi Marzol, Julen Zelaeta Iriarte eta Xabi Maia Etxeberria

Gai-jartzailea: Alaitz Rekondo Ferrero | Aukrezlea: Fernando Anbustegi Gorri

Sarrerak: salgai Xapateron (Etxarri Aranatz) eta www.bertsosarrerak.eus atarian

FINALA

Laguntzailea



San Migel irin-errotak jakin-mina piztu du

Herenegungo hitzaldian 120 bat pertsona izan ziren. Arluzepe kalean 1936tik 1976 urte arte lanean aritu zen familia-enpresa izan zen. Jauregi familiak kudeatzen zuen errota. Familiari eta enpresaren martxari buruzko argibideak eman zituzten

ETXARRI ARANATZ

San Miguel irin-errota eskualdeko azken industria irin-errota izan zen, herriko irin-errota hidroelektrikoen belaunaldiaren ondoren eraiki zena. Makinaria eta sistema austriar-hungariarra zuen, garai horretan penintsulan eta Europa osoan zehar hain zabaldua zena. Etxarrikoa garai hartako sektoreko irin-errotan adierazle aipagarria izan zela.

Dohaintza

Jauregi sendiak irin-errotaren dokumentazioa eman zion dohaintzan Nafarroako Artxiboari joan den urteko garilaren 31n. Nafarroako Gobernutik aitortu duenez, "artxibo industrial baliotsua da jakiteko zer nolako kudeaketa izan zuen landa-eremuko enpresa batek XX. mendearen erdian baino gehiagoan". Dohaintzan emandako dokumentazioan daude: fabrikako eragiketarako erregistratzeko liburu bat eta familia-dokumentuak zein irin-errota instalatzeko eta kudeatzeko proiektuaren dokumentuak dituzten 22 artxibo-kaxak. Irin-errotako makineria Arbizuko Olatzea hotelean dago gaur egun.

Historia

Jauregi sendiak (Bidania herrikoa) gutxienez XVIII. mendetik



Jauregi-Ondarra familia 1930eko hamarkadan. UTZITAKOIA

DOHAITZAK: 848 429 721 EDO ARCHIVO. ADMINSTRACIÓN. INFORMACION@ NAVARRA.ES

jardun zuen errota-lanbidean. Urdaingo, Bakaikuko eta Arbizuko erroten arduradunak ziren, guztiak errentan hartuta. Arbizun bizi zirela irin-errota jarri nahi izan zuten. Iruñean kokatzea gomendatu zieten, baina Etxarrin kokatu zuten. Upategiek eta irin-fabrikek landa-ingurunekeo industrializazio-prozesua hasi zutela esan daiteke.

Aniceto Jauregik teknika eta makina berriak txertatzea erabaki zuen, eta berritasun handiak ekarri zituen enpresa-kudeaketara. Haiei esker ekoizpena hobetu zen. Makineriari dagokionez, harri zizelkatuko ehotarriak metalezko arrabolekin ordeztu zituen; motor elektrikoak txertatu zituen; ehotze-sistema aldatu zuen, irin zuriagoa eta finagoa lortzeko; eta irina makinaz baheztzen eta arazten hasi zen. Kudeaketari dagokionez, alea

eta irina biltegitratzeko sistema bat txertatu zuen. Hari esker, produktua hurbileko hirietan saltzea kudeatzen zuen. Aldaketa izan zen, mendetan ekoizle bakoitzak emandakoa eho zutelako erroretan. Negozio-ikuspegi modernoak zen hura, ondorioz, antzinako erroretatik oso bestelako eraikinak eraikitzea eragin zuen. Antzinako errota horiek zenbait solairutako eraikinekin ordeztu ziren, zeinek leiho asko eta zabalak baitzituzten, bai eta biltegi handiak zituzten etxabeak ere, zakuendako, eta ibilgailuen karga eta deskargarako.

Eraberritze teknologiko horretarako, Anicetok irin-errotetan espezializatuta zegoen Kataluniako Establecimientos Morros SA enpresara jo zuen. 1934an, 24 orduan 6.000 kilo gari automatikoki egiteko gai zen instalazio bat diseinatu zuten. Haren semeak (Gabriel eta Jose Jauregi Ondarra) familia-negozioaren kargu egin ziren. Gobernuak ekoizpen txikia zuten irin-errotak ixteko agindua eman zuen, irin gehiegi ekoizten zelako. Anaiak erretiratzekotan zeuden eta kalteordaina jaso zuten. 1968an itxi zen, jarraituko zuenik ez zegoelako.



Argazkioinaxxx. ARGAZKIJABEAXXX

Kulturantzitasun lezioa Atakondoa eskolan

Eskolan dagoen aniztasunaz ikas komunitatea aberasteko aukera eskaintzen du

IRURTZUN

Hurrengo bost asteetan Atakondoa sartzen denak argazki erakusketa batekin egingen du topo. Erakusketa astero aldatuko da, eta hala bost kontinenteen ezagueriak ezagutzeko aukera izanen dute ikasleek, gurasoek, irakasleek eta eskolako gainontzeko langileek. Aurreneko erakusketa atzo mustu zen eta hurrengo asteazkenera arte ikusgai izanen da. Gainera, dagokion kontinenteari lotutako menua dastatzeko aukera izanen da ikastetxeke jangelan ostegunetan. Amerikarekin hasiko dira. Gero Afrika, Asia, Ozeania eta Europaren txanda izanen da.

Zikloak ikasleen atsedena ere hartuko du. Izan ere, ikasleek dagokion kontinenteko talde jolas bat ezagutzeko eta hartan jolasteko aukera izanen dute. Horretaz aparte, dagokion kontinenteko den norbaitek, edo hari buruzko ezagutza handia duen norbait, ikasleekin bildu eta azalpenak emanen dizkie. Baina ikasleak ez dira entzuterara mugatuko, galderak egiteko aukera izanen dute. Hizlariak egitekoren bat ere proposatuko die: eskulanean bat, errezetaren bat edo beste zerbait egitea. Hori ostiraletan eta astelehenetan izanen da, liburutegian.

Zuhaitz-landaketa egingen da beheko basoan

Bihar, 10:00etan, plazan da hitzordua. Zuloak eginak daude eta haietan zuhaitzak landatuko dira

LAKUNTZA

Lakuntzako Udalak, guraso elkarteek eta Biltoki gazte elkarteak "ingurumenaren errespetua eta zaintzaren kontzientziaren garrantziaz" jakitun lakuntzarrei deialdia egin diete: beheko basoan larunbat goizean egingen den zuhaitz landaketan parte hartzea. Udalak han bazkaleku bat prestatu nahi du eta, horretarako, 800 bat haritz, gaztainondo eta astigar landatuko ditu.

Hitzordua bihar, 10:00etan jarri dute plazan. Handik beheko basora joanen dira eta hara iristean auzolanean parte hartuko dutenek Lur Geroa enpresako Xabier Erbitiren azalpenak jasoko dituzte. Ondoren, lurtean eginda dauden zuloetan zuhaitz landareak lantatzeko txanda iritsiko da. Beraz, ez da lan nekagarria izanen. Baina nor bere aitzurrak eraman beharko ditu. Lana despeditu ondoren, udalak auzatea eskainiko du. Patxi Xabier Razkin alkateak azaldu duenez, "gure herria eta ingurua osatzen dituzten guneen garbiketa eta zaintzari bideratutako ekintzetarako ate bat ireki nahi genieke".

Zuhaitz landaketaren antolatzailerik guztia behar bezala prestatzeko guraso elkarteetan izena emateko eskatu dute.

Xabierko gazteluak 2. erromesaldia hartuko du bihar

Bihar Xabierren egon nahiko duten asko gaur gauean edo bihar goizaldean abiatuko dira oinez. Zangozan 15:00etarako egon behar dute, ordu horretan hasten baita Zangozatik Xabierrantz egiten den gurutzeta bidea. Behin Xabierko Frantziskoren sorterrian, meza 17:00etan hasiko da. Kristau komunitate nafarrak gaztelu aurreko zelaian bat egingen du.

BIKAIN GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 463 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

Mekanika Elektrizitatea Txapa Margotzea

Ederbidea ibilbidea egokitzeko lanen deialdia

Doneztebe eta Irurtzun arteko ibilbidea egokitu eta Bidasoa eta Plazaola bide berdeak lotuko ditu

ARAKIL / IRURTZUN

Nafarroako Gobernuak Doneztebe eta Irurtzun artean Ederbidea bizikletendako 52 km-tako ibilbidea egokitzeko lanen deialdia egin du gaur. Lizitazioa 760.686,75 eurokoa da (BEZ kanpo). Haietatik Europako Batasunak 529.412,86 euro jarriko ditu. Lanak egiteko interesa dutenek euren eskaintzak apirilaren 4ko gauerdira arte egin dezakete. Lanak 10 hilabetetan despiditu beharko dituzte.

Ogasun eta Finantza Politika Departamentuak deialdia lau lotetan banatu du. Bat seinalez-tapena eta altzariak jartzeko eta gainontzeko hirurak ibilbide zatiak egokitzeko. Horietako azkena Imozko kasarnaren eta Irurtzun arteko 2,8 km-ko ibilbidea da. Pasabideak eta bizikletendako pista egiteko lanen lote horren aurrekontua 282.832,33 eurokoa da (BEZ barne). Ederbideako ibilbideak Imoztik atera eta Arakilen NA-1300 errepedearegi segituz egingen du aurrera. Behin Biazpeko tunela pasata, ezkerretara, bizikletendako pista berria egingen da, mendi magalari segituz eta Irurtzuno Ardantzeta dermioan Plazaolaren bide berdearekin bat egingen du, tunelaren ahoaren ondoan. [+guaixe.eus](http://guaixe.eus)

Hiruna langile kontratatuko dituzte Etxarrin eta Olaztin

Nafar Lansareren diru-laguntza baliatuz bai Olatzagutiko bai Etxarri Aranazko udalek langabezian dauden hiruna pertsona kontratatuko dituzte. Olatzagutiko deialdian interesa dutenek gaur dute azken eguna Altsasuko enplegu bulegoan izena emateko. Etxarri Aranazkoan, berriz, apirilaren 2ra arte eman daiteke izena.

Olatzagutian sei hilabetez ariko dira lanean, 10 hilabetera arte luzatu daitezkeenak. Etxarri Aranatzen urte erdi eta urte bateko artean ariko dira lanean. Izena ematen duten eta titulurik ez duten hautagaiek euskara proba pasa beharko dute, teoriko eta praktikoarekin batera.

Lakuntzarren kulturak ezagutzeko aukera ezin hobea

Herri askotako festetan ohikoa da etxez etxeko erronda egitea. Txingurriye taldeak berera egokitu du ohitura hori eta kulturarteko itxez itxe, edo erronda prestatu du. Plazan jarri dute hitzordua etzi, 17:00etan. Han biltzen diren herritarrek elkarrekin kultura desberdina duten lakuntzarren etxeetatik pasako dira. Geldialdi bakoitzean etxe-koek euren kulturako jantzien, jakien, tresnen edota ohituren inguruko azalpenak emanen dituzte. Halako topaketekin Txingurriye taldeak lakuntzarren arteko zubiak sortu, herritarren arteko ezagutza eta harremana sendotu eta horiek hobetzeko bidea jarri nahi du.

Langileak: klinika "egoera larrian" dago

Nafarroako Gobernuak hitz emandako 250.000 euroak "interbentzio arazoengatik" ez dira iritsi eta donazio kopuruak behera egin du. Langileek "klinikaren etorkizunagatik eta gure lanagatik erabateko ziurgabetasuna eta kezka ditugu"

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Josefina Arregi klinika psikiatrikoko langileek greba feminista baliatu zuten klinikaren "egoera larria" ezagutarazteko. Enpresa Batzordeko kide Esther Gasanzen azalpenak dira. "Guretako polita izan da momentu hori". Berak argitu digu bizi duten egoera: "beti eskasa izan den ekonomia hitzarmen batekin biziraun du klinikak. Hainbat erakunderen ekarpenengatik eutsi izan diogu". Batzordeko kide Eneritz Katarainek gaineratu duenez, "Nafarroako Gobernuak 250.000 euro eman zizkigula zabaldu zenean min handia egin zigun. Jende gehienak uste du diru hori klinikara iritsi dela. Eta ez da egia. Eta jendearen eta entitateen diru emateetan jaitziera handia izan zen, min egin digu". Gobernuak 2017ko aurrekontuetan onartu eta eman zuten, baina dirua ez da klinikara iritsi. Hainbatetan aldarrikatu du klinikak dagokiona, baina administrazioaren interbentzio atalean geldiarazi da beti dirua.

Hitzarmena berri gabe

Gobernuak Josefina Arregi klinikarekin zuen ekonomia-hitzarmen berria abenduan sinatuta egon beharko luke. Haren luzapena dago gaur egun indarrean.



Langileek 15 minutuz gelditu zuten ostiralean, kalejirari harrera egiteko.

Gasanzen esan digunez, "heldu ez den hitzarmen berri baten zain gaude, ez dakigu noiz iritsiko den. Edo iritsiko den". Horregatik guztiagatik, langileei "klinikaren etorkizuna zein izan den ez jakiteagatik ziurgabetasuna eta kezka sortzen dizkigu". Jendeari babesa eskatu dio.

Langileak egoerarekin kezkatuta daude. "Gutxieneko soldata ditugu eta 10 urte daramatzagu soldata izoztuta". Pertsonalki "gaizki" daudela aitortu digute. "Eta hala eta guztiz ere klinikaren ekonomia egoera ez da ona.

Lanean zenbaki gorriak atzetik ditugu. Ditugun baliabide material eskasekin eta gure ahaleginarekin, gaixoen ongizatearengatik lana aurrera ateratzen dugu". Katarainek gogorarazi du demontzuen gobernuan eta tratamenduan klinika erreferentzia dela Nafarroan eta estatuan. "Itxaron zerrenda handia dugu, beraz klinika ezinbesteko zerbitzua denaren adierazlea da. Aurrera egiteko borrokatu beharra dago". Horregatik Gasanzen gobernuari hausnarketa eskatu dio.

LAN ESKAINTZA



IDAZKARITZA ORDEZKAPENA

Andra Mari ikastolak idazkaritzan amatasun baja bat betetzeko ondorengo profila duen langile baten beharra du:

- Gutxieneko titulazioa: Lanbide Heziketako goi mailako administrazio arloko ikasketak.
- EGA edo baliokidea.

Interesa izanez gero, bidali curriculumak Andra Mari ikastolako web orrialdeko "Lan Poltsa" atalaren bidez (www.andramariikastola.eus) martxoaren 22ra arte.



ALZATE ERAIKUNTZAK s.l.

Zubetia 21, Altsasu
Tel. 948 562 745 · Fax 948 467 600
www.construccionesalzate.com

www.pescaderiamariaeugenia.com
Arratsalde zabalik

maríaeugenia
Arrainak

Lortu deskontuak gure txartelarekin!

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
El Ferial, 1 · 948 467 950 / Isidoro Melero · 948 467 725



Altsasun manifestazioa deitu dute martxoaren 24rako, 12:00etan, suhiltzaileenetik.

"Erabakiak berriro zigortzen ditu gure seme-alabak"

Espainiako Auzitegi Nazionalako Apelazio Aretoak epaia berresteak kritikatu dute Altsasu Gurasoak taldekoek

ALTSASU

Altsasuko auziko bigarren epailetaren epaia ostegunean jakinarazi zuten eta haren balorazioa larunbatean egin zuen Altsasu Gurasoak taldeak. Azaldu zuten, "bi urte eta erdi dira mina eta oinazea" sentitzen dutela, eta ez dute "Justiziaren argia ikusiko dugun eguna noiz izanen den". Auzipetuen gurasoen iritziz, "Espainiako Auzitegi Nazionala ez da Justizia ezartzen duen erakundea". Epaitegiaren erabakian "mendekugosea, Guardia Civilari men egiteko nahia, askatasun eta eskubideen murrizketarako bidean jarraitzeko asmoa" ikusi dute.

Emandako epaiak euren seme-alabei "neurritz kanpoko zigorrak" ezartzen dizkiela salatu zuten: "Ez dira terrorista gisan epaitzen, baina, terrorista bailiran zigortzen dira. Epaia oinarritzat hartzen duen kontakizuna egia balitz ere, hainbeste urtetako

kartzela zigorrak astakeriak dira nonahitik ikusita". Aldi berean salatu zuten Espainiako Auzitegi Nazionalak egin duen "terrorismo kalifikazioaren erabilpen maltzurak, Lamela epaile instruktorea arduradun nagusia delarik, prozedura judiziala nahastea zuen helburu, mendekuan oinarrituriko zigorra ezarri ahal izateko eta auzia bereganatzeko Nafarroako Lurralde Auzitegiari ebatsi".

Gurasoak diskriminazio astungarriaren erabileraz: "irizpide politiko edota ideologikoen arabera zigorrean eta mendekuan oinarritzen den eredu zabal baterako atea irekitzen du. Hau, oinarritzko eskubide eta askatasunak babesten dituen zuzenbidezko Estatuaren aurkakoa da. Gizarteak arduraz hartu behar luke hau zeren eta, gaur gure seme-alabak dira baina aurreantzean edonor izan daiteke".

Tren sozialaren aldeko ideiez janzteko hitzaldia

Bihar, 18:00etan, Altsasuko Iortia Kultur gunean, Sakana Trenaren Aldek antolatuta

SAKANA

Ibarra gaur egun zeharkatzen duen trenbide sarea bikoiztu, haietan hirugarren erraila jarri eta herriei benetako zerbitzua emanen dien tren soziala defendatzen du Sakana Trenaren Alde plataformak. Sustapen Ministerioak Sakana alderik alde edo Altsasuraino zeharkatuko lukeen Abiadura Handiko Tren (AHT) egitasmoak mahai gainean ditu. Hortaz gain Nafarroako Gobernuak proposatutakoa dago, Bakaiku aldetik Gipuzkoarantz joko lukeena. Plataformako kideek adierazi dutenez, "inoiz ez dute aztertu egungo trenbide sarea berritzea eta indartzea".

AHT egitasmoek Sakanan sortuko duten ingurumen eta gizarte kalteen berri sakandarrei emateko, plataformak estatuan abiadurak duen garapenaren inguruko informazioa emanen du biharko hitzaldian. Plataformako kideek ibarreko eragineen berri emanez hasiko da. Ondoren, Pablo Lorente, Sustrai Erakuntza fundazioko kidea eta Castejonon AHT kaltetua dena, fundazioak proposatutako alternatibaren inguruan hizketatuko da. Hitza hartzen hurrenak AHT sakon aztertu duten Euskal Herriko Unibertsitateko bi irakasle izanen dira: David Hoyos ekonomialaria, *Euskal Y-a: irtenbiderik gabeko atakan* txostenaren egileetako bat eta Josu Larrinaga soziologoa eta *TAV: Las Razones del No* liburua egileetako bat. Azkenik, Tafallako Udaleko ordezkariak, AHTk Nafarroako erdi aldean dagoeneko eragiten ari den kalteen inguruan hitz egingen du.

Bestalde, hilaren 30erako, larunbata, 18:00etan, Altsasuko suhiltzaileen parketik abiatuko den manifestazioa antolatu du Tren soziala bai, AHT gelditu. Respetad la voluntad popular lelopean.

Bulkada eguna antolatu dute biharko Olatzagutian

Altsasuko gaztetxean gazte antolakundearen bilakaeraz ariko dira gaur 19:00etatik aurrera

SAKANA

Bulkada berrien garaia da! dinamika "40 urtez gazte antolakuntzan eta borrokan ibilitako gazte ororen dinamika da, Euskal Herri sozialista eta feministaren aldeko gazte bulkadena". Leitzan irailean jarri zuten martxan eta ezker abertzaleko Jarrai gazte antolakundearen sorreraren 40. urteurrena gogoan. 40 urte horietan hainbat belaunalditako kide bat egin dute ezker abertzaleko gazte antolamendurekin.

Ernai eta Aitzina gazte antolakundeak Lemoan Gazte Topagunea antolatu dute aurtengo apirilaren 19tik 22ra. *Askatasun bulkadak independentziara!* leloa izanen du topaketak. Haren atariko Euskal Herrian barna hainbat Bulkada Eguna antolatu dira eta Sakanako Olatzagutian izanen da bihar, *Gazteok 40 urtez antolakuntzan eta borrokan* lelopean. Sakanako "herri guztietako bulkada berriak batu nahi ditugu, baita urte luzez gazte borrokari bultzada eman diozuen belaunaldi desberdinetako kideak ere". Horregatik, parte hartzeko deia luzatu dute "Sakanako gazteen harremana estutu eta gazte borrokari bultzada emateko". Aurretik Arbizon eta Urdiainen hitzaldiak izan dira.

Olatzagutiko egitaraua

- **13:00etan** Poteo girotua eta kartel erakusketa, gaztetxean.
- **14:30ean** Bazkaria eta bingo musikatua.
- **19:00etan** Manifestazioa.
- **19:30ean** Elektrotxaranga.
- **21:30ean** Ogitarteko-jana.
- **23:00etan** Kontzertuak: Aurrez aurre eta Trikidantz.

Bilkura isila egin zuten Madrilgo atentatuak gogoan

Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna zela eta, duela 15 urte Madrilen izandako atentatuak gogoan izateko Altsasuko Udalak udaletxe aurrean kontzentratzera eta minutu bateko isilunea gordetzera deitu zuen astelehenerako. Bilkuran alkatea, Virginia Alonso Goazen Altsasuko zinegotzia eta beste lau altsasuar izan ziren.

Bel Pozueta Nafarroako EH Bilduren zerrendaburua

Kongresurako hautagaia da. Altsasu Gurasoakeko bozeramaile lanetan ez du segituko

ALTSASU

Bel Pozueta altsasuarra EH Bilduren eskaintza onartu eta koalizioaren Nafarroako kongresurako zerrenda burua izanen da. Soziologia Politikan lizentziaduna, sexologoa da Pozueta. 53 urteko altsasuarra ezagun egin da Altsasuko auziko auzipetuen gurasoen taldearen bozeramaile izan delako. Haietako bat, Adur, bere semea da, eta 12 urteko espetxe zigorra jarri zion Espainiako Auzitegi Nazionalak.

Herenegun emandako prentsurrekoan jakinarazi zuenez, "Altsasuko auziko injustiziak borrokarako grina piztu dit". Azaldu zuenez, "injustiziaren aurka altxatzen ikasi dut. Guri sufritzea tokatu zaigu, baina bidean ikusi dugu jende askok sufritzen dugula, Euskal Herrian, Espainian zein Europan". Aukera "bidegabekeria guztien kontra egiteko bozgoragailutzat" hartu du altsasuarra. Aurrean duena "erronka handia" dela gaineratu zuen, "baina badakit ez naitzela bakarrik egonen. Adurrek ere aurrera egiteko esan dit". Pozuetak esan zuenez, "Nafarren hitza Madrilera eraman behar da". Pozuetak Altsasu Gurasoak taldearen bozeramaile izateari utzi dio. +www.guaixe.eus

Udalak manifestazioarekin bat

Auziko epaia berretsi eta gero, Altsasuko Udaleko Bozeramaileen Batzordeak epaiarekin "erabateko desadostasuna" duela adierazi zuen asteartean, "ezarritako zigorrak berresteagatik eta auziaren inguruan egon den neurrigabekotasunean sakontzeagatik". Idatzia Geroa Baik, EH Bilduk, Goazen Altsasuk eta PSNko Julia Cidek sinatu dute. Udaletik salatu zuten "zenbait sektore politikok eta hedabidek herriaz egin duten eta jarraitzeko asmoa duten erabilera eta manipulazioa. Altsasuren bizitzaren irudi ez erreala eman nahi duten jarreraren eta jardueren kontra" azaldu ziren ere. "Azken bi urte eta erdian altsasuarrek elkarbizitzaren, normalizazioaren, justiziaren eta proportzionaltasunaren izan duten jarrera zibikoa eta eredugarria" aitortu du.

IRAKASLEEI ESKERRIK ASKO





ESKOLA EMAN ZENIDAN, ETA NAIZENA IZATEN LAGUNDU ERE BAI.

Irakasleei esker,
eskola-gaiak ikastea baino gehiago da Hezkuntza.
Nor zaren deskubritzea ere bada.



Hemen istorio osoa deskubritu.
www.educacion.navarra.es

 @educacion_na
 /hezkuntzaNAeducacion

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra



Edurne Gonzalez eta Aitor Altuna Beleixe Irratian.

Ausartu : "sinisten dugun horretan lanean aritzeko"

EDURNE GONZALEZ ETA AITOR ALTUNA AUSARTU KULTUR ELKARTEKO KIDEAK Hezkuntza ez formalera iristeko helburuz sortu zen Ausartu kultur elkarte 2018an. Elkartearen aurreneko proiektua udaleku eskaintza izanen dela azaldu digute

ALTSASU

Zerk elkartu zaituzte proiektuan?

E. Hezkuntza ez formalean tar- te bat ireki nahi genuen eta, horretarako, azken bospasei urteetan beste proiektuetan el- karrekin lanean aritu gara. Horrek batzen gaitu. Batera ibili gara bai Euskal Udalekue- tan, bai Ikastolen Elkartearen zenbait proiektutan. Aurreko urtean erabaki genuen gure proiektua martxan jartzea eta Ausartu kultur elkarte sortu dugu.

Zergatik sortu zeuena zen zerbait?

E. Proiektu desberdinetan ibili gara eta horrek eman digu au- kera ikusteko zein gauza on eta zein gabezia zeuzkan proiektu bakoitzak. Gabezia horiek iku- sista saiatu gara erantzun bat

**"GABEZIAK IKUSITA
SAIATU GARA
ERANTZUN BAT
EMATEN, BAI
NERABEEI BAI GURI"**

ematen. Bai nerabeei begira, kasu honetan guk udalekuak 12 eta 18 urte bitarteko gazteei zu- zenduta egiten ditugulako. Bai- ta gu hezitzaile bezala, gure behar horiek asetzeko. Ikusten genu- lako proiektu askotan parte har- tzen genuela baina ez genituela gure sentitzen. Orain gure proiekt- ua sortuta badugu aukera nahi bezala, edo sinisten dugun ho- rretan lanean aritzeko.

Zer da Ausartu?

A. Kultur elkarte bezala egitu- ratu dugu, horrek ahalbideratzen

zigulako aisialdi eta hezkuntza ez formalean eskua sartzen has- teko. Lehenengo gure egitasmoa udako egonaldiak izanen dira. Aurten aterako ditugu, udan, garilean, Hatsartu egitasmoaren baitan. Balorazioaren ondoren irekiko dira ate edo leiho berriak. **Zuen lan esparrua hor kokatzen duzue, ezta?**

E. Hasiera batean udaleku itxiak egingen ditugu. Baina etorkizuna- ri begira, imajinatzen dugu beste proiektu batzuk sortuko ditugula: prestakuntza, udaleku irekiak, familiekin lan egiteko esparruak... **Proiektua zabaltzeko lanean ari zarete?**

A. Gure helburua, azken batean, udaleku hauetan familia txiki bat osatzea da. 30 gazte eta bost bat hezitzaile egonen gara. Hel- burua da 30 gazte horietan, bai- ta hezitzaileetan, Euskal Herri- ko panorama biltzea.

Zer dela eta izen hori?

E. Horrelako proiektu batean sartuta, elkarteari izena jarri behar genion eta azkenean ez dakit nola: ausartu. Izena jarri eta gero hasi ginen lotzen gurekin: ausartu gara gu ere bai pauso hori ematen.

Hutsunea ikusten duzue nerabeen- dako eskaintzan?

A. Argi genuen guk nahi genuena zela benetan mundu guztia proiektu- aren parte sentitzea. Eta adin tarte horretan zentratu nahi ge- nuen eskaintza. Hiru txanda dira: DBH 1. eta 2, DBH 3. eta 4. eta Batxilergoa 1. eta 2. gazteendako. Udalekuan bertan egonen den proiektua parte-hartzearen ingu- ruan zentratuta dago. Hezitzaileok askotan parte hartzeaz hitz egiten dugu, udaleku parte-hartzailea, zein garrantzitsua den denon hit- za kontuan hartzea. Baina gero behin udalekura joanda, askoz errazagoa da hau daukat presta- tuta hau egingen dut, zer egingen dugu eta nola egingen dugu galde- tzea baino. Askotan ematen du errazagoa dela esatea: gazteek erabaki dezatela, eta nahi badute jolas hau, jolas hau. Baina hor atzean hezitzailearendako lana askoz handiagoa da. Askotan 15 urteko gazte bati ez zaio galdetu ez ikastolan, ez etxean, ez inon

**"NAHIZ ETA INOIZ EZ
EMAN AUKERARIK
ZERBAIT ZEROTIK
SORTZEKO, AUKERA
HORI EMANEN DIEGU"**

zer egin nahi duzu? Nola? Zerga- tik? Gure lana izanen da udalekuan bertan pixka bat artikulatzea udaleku barruko parte hartze hori eta bideratzea, benetan, 35en artean sortuko dugun egonalditxo hori. **Sakanakoek zergatik aukeratu beharko lukete Ausartu?**

E. Udaleku hauek desberdintzen dituen da, alde batetik, parte hartzea. Gu saiatuko gara denen artean, 35en artean egiten, uda- lekua sortzen. Bestetik, gazteen autonomia garatzen. Horregatik ere adina: 12 eta 18 urte arteko gazteak badute gaitasuna, ba- dute autonomia gauzak aurrera eramateko. Nahiz eta inoiz ez eman aukerarik zerbait zerotik sortzeko, guk aukera hori eman- nen diegu. Beraiek haien artean ikas dezaten saiatuko gara.

Zein da zuen eskaintza?

A. Lehen txandan, garilaren 7tik 13ra 2005ean eta 2006an jaiota- koak, bigarreanean, garilaren 14tik 20ra, 2003an eta 2004an jaiotakoak eta azkenekoan, ga- rilaren 21etik 26ra, 2001ean eta 2002an jaiotakoak.

E. Izen ematea astelehenean za- baldu da. www.ausartu.eus web gunearen bidez eman behar da izena. Dena den, zalantzak egonez gero, badugu e-posta eta horra idatzi daiteke: ausartukulturel- karte@gmail.com. Lekuari da- gokionez, aurten izanen dira Astigarragako Santiagomendi aterpetxean. Mendi inguruan kokatuta dago. Oso aproposa uda- lekuak hartzeko eta lasaitasuna nagusi den leku bat.

A. Txorakeria bat ematen du, baina askotan, gazte batek uda- leku batean izena ematen due- nean, beti gurasoeka ematen dute izen, legezko-tutoreak edo dena delakoak, askotan gaztea- ri galdetu gabe ere. Gure proposamena hasten da hasiera- hasieratik gazte hori subjektu gisa ulertzen, eta benetan parte izateko bide horretan laguntzen. Horretan, adibidez, fitxa hiru zatitan planteatu dugu: datu orokorrak, gazteak bete behar- rekoa eta gurasoak edo legezko- tutoreak bete beharrekoa. Az- kenean txorakeria da, adinez txikikoak izanik, legez, gurasoek edo legezko-tutoreak erantzun behar duela. Seme-alaba argaz- kietan ateratzeko baimena ema- ten duzu? Gurasoek baietz. Bai- na gazte horri inork ez dio galdetu. Ez da batere kostatzen gazteari hitza ematea eta kontuan hartzea.



Agur, ihoteak!



ALTSASU



IHABAR - MAIALEN HUARTE



OLATZAGUTIA



HIRIBERRI ARAKIL - INES HUARTE



ZIORDIA - UTZITAKOA



ITURMENDI - UTZITAKOA



ALTSASU

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 15

ALTSASU Gazte agenda. *Sare sozialak eta mikromatxismoak* hitzaldia. 18:30ean, Intxostiapuntan.

LAKUNTZA Jorge Batista kubatarren kontzertua. 19:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Kontzentrazioa. 19:00etan, Kale Nagusiko 7.ean.

LAKUNTZA Kontrakulturatik kontrabotererantz hitzaldia. Hizlaria: Sorginkale. 19:00etan, gaztetxean.

IRURTZUN Irurtzango antzerki tailerraren *Mujeres de casa vieja* antzeulanaren emanaldia. 19:30ean eta 22:00etan, kultur etxean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak. 20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa. 20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU *Bajo el mismo techo* gaurkotasunezko filma. 19:30ean, lortia kultur gunean.

ARBIZU Palestina izenburuko hitzaldia eta 2019ko Askapenako Brigaden aurkezpena. Hizlaria: Palestinan egondako brigadista. 22:00etan, Argi Bidean.

LARUNBATA 16

OLATZAGUTIA Bulkada eguna. Gazteok 40 urtez antolakuntzan eta borrokan. 13:00etatik aurrera, herrian barna.

ALTSASU Gazte agenda. Pantailak, just dance eta barredora. 17:30ean, Intxostiapuntan.

IRURTZUN Ene kantak-en *Satorjator* ikuskizuna. Pikuxar euskal txokoak antolatuta. 18:00etan, kiroldegian.

ALTSASU *AH*trik ez, tren soziala bai inguruko hitzaldi sorta. 18:00etan, lortia kultur gunean.

ARBIZU Tiebasko abesbatzaren kontzertua. 18:30ean, elizan.

IRURTZUN Irurtzango antzerki tailerraren *Mujeres de casa vieja* antzeulanaren emanaldia. 20:00etan, kultur etxean.

IGANDEA 17

LAKUNTZA Itxez itxe txingurriye. 17:00etan, herritik zehar.

ALTSASU Dragoball familiarteko filmaren emanaldia. 17:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Gazte agenda. Billar arratsaldea. 18:00etan, Intxostiapuntan.

IRURTZUN Irurtzango antzerki



IRURTZUN Pintura tailerraren *Inspirazioak margotzen harrapatu behar zaitu* erakusketa. Pikuxarren.

tailerraren *Mujeres de casa vieja* antzeulanaren emanaldia. 19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU *Bajo el mismo techo* gaurkotasunezko filma. 19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU *El orden divino* zineforum filmaren emanaldia. 19:40ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 18

ALTSASU Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko Plataformak deitutako elkarretaratzea. 12:00etan, Zumalakarregi plazan.

OSTEGUNA 21

ALTSASU *Destroyer. Una mujer herida* gaurkotasunezko filmaren emanaldia. 19:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU *Border* zineforum emanaldia. 19:00etan, lortia kultur gunean.



ALTSASU Lehengo jostailuak erakusketa. Martxoaren 31a arte. Astelehenetik ostiralera 18:30etik 21:00etara, larunbatetan 18:00etatik aurrera eta igandean 16:00etatik 20:30era, lortian.

ZORION AGURRAK



Helene Zubeldia
Zorionak sorgintxo!! 7 urte jada, urte askotarako. Muxu pila!!




Onintza eta Lexuri
Udaberriye heldua eta zuek zarie gu kimu berriyek. Muxu handi bana!




EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 15




Behere lainoarekin esnatuko zaigu eguna, baina egunak aurrera joan ahala, eguzkia agertzen joango da gurean, tenperaturak gora eginez. Haizeak hego ukitua izanen du.

Igandea, 17




Haizeak iparraldera egingo du eta euria ekarriko du gurera. Euria gogotik egingo du eta tenperaturek nabarmen egingo dute behera. Elurra gertu izanen dugu.

Larunbata, 16



Eguzkia izango da gaurko protagonista. Zerua urdin urdin izango dugu eta hego haizearen ondorioz, tenperaturak asko igoko dira. Disfrutatuta larunbata!

Astelehena, 18



Euria izanen da egun guztian zehar, zaparrada handiak izango dira eta mendi tontorrek txuriak ikusiko ditugu. Hotz handia izanen dugu egun osoan zehar.



DE KOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com
www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



OROIGARRIA

Yeray Lanz Azpilikueta
I. urteurrena

Beti gogoan izango zaitugu, ez joan zinen moduarengatik, bizi izan zinen eragatik baizik, gure bizitzak betiko aldatu zenituen eta.

Maite zaitugu
Ixaro eta zure familia

OROIGARRIA

Yeray Lanz Azpilikueta
I. urteurrena

Utzi pentsatzen berriz elkartuko garela, iraganeko egunak itzuli ahal direla.

Mariaren kuadrilla

OROIGARRIA

Yeray Lanz Azpilikueta
I. Urteurrena

Ahazten ez dena ez da inoiz hilko, beti egongo zara gure bihotzetan.

Zure Lakuntzako familia

OROIGARRIA

Salvador Lopez de Zubiria Goikoetxea
II. urteurrena

Urteurrenaren meza, igandean, matxoak 17 eguerdiko 12:30ean Bakaikuko San Juan Bautista elizan

Bi urte zu gabe.
Egunero egiten dugun ariketa zaila da, zu gabe bizitzen ikastea.

Asko maite zaitugu
Etxekoak

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI-ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com



JAIOTZAK

- **Elaia Claver Montero**, martxoaren 7an Altsasun
- **Mohamed Brayiko**, martxoaren 8an Urdiainen
- **Arane Goikoetxea Tapia**, martxoaren 8an Uharte Arakilen
- **Amaia Goikoetxea Otamendi**, martxoaren 11n Etxarri Aranatzen

HERIOTZAK

- **Doroteo Araña Goñi**, martxoaren 6an Etxarri Aranatzen
- **Jacinto Perez Lezea**, martxoaren 12an Olaztin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRAGARKI SAILKATUAK

IKASTAROAK

Ceder Garalur Elkarteak enpresa-kudeaketari buruzko bi ikastaro antolatatu ditu. "Antolatatu zure paperak ogasunarekiko betebeharrak betetzeko" martxoaren 12an, 10:00etatik 14:00etara eginen da. Eta "Ziurtagiri digitalak eta ogasunarekiko izapideak" martxoaren 20an, asteazkenean, 10:00etatik 12:30era izanen da. Informaziorako edota izena emateko: 619 328 264 telefonoa edo sakana.admon@cederna.es e-posta helbidea.

Kanpo desfibriladore automatizatua: DYAK martxoaren 16an, 9:00etatik 15:00etara ikastaroa ematen du Altsasun. Informazioa jaso edo izena emateko: formacion@dyanavarra.com

Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilgunea zerbitzuaren ikastaroak: Jendaurreko komunikazioa (martxoak 2 eta 16, 10:00-

14:00). Erabili mobila heldabide moduan (taldeak adostuko du egutegia). Zaindu ezazu zeure burua (martxoak 21, 28, apirilak 4, 11 10:00-11:30 edo 18:30-20:00), Autodefentsa feminista apirilak 6, 9:00-14:00 / 15:00-18:00. Zinean sartzen gara (ikastaro hau gizonentzat ere zabalik: martxoak 6, 13, 20 eta 27 18:00-20:00). Ikastaro bakoitzak 12,50 euro. Izen ematea: 948 564 823/ 948 468 343 ifnoetan, Gure-etxean edo berdintasuna@altsasu.net emaillean.

LEHIAKETAK

GAZTEWOOD Altsasuko gaztetzaren III. Film laburren txapelketa. Gehienez 15 minutu. Lanak MP4 formatuan, DV-Dan edo pendrivean aurkeztu behar dira 2019ko martxoaren 19a baino lehen. Informazio gehia-

gorako gaztewood@gmail.com edo sare sozialetan gaztewood profilean.

OHARRAK

Etxarriko irakurle taldea: Apirilaren 11n, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian elkartuko dira eta Alberto Ladronen "Arotzaren eskuak" liburua izanen dute hizketagai. Gonbidatuta zaude

Crowdfunding Kanpaina: Aritz Ganboa de Migel artzain-gaztagile arbasuarren erronkan parte hartzea gonbidatuta zaude. Arruazutik Izabarraino mendi lasterketa eta gazta trukaketa Bideak dokumentalean jasotzeko kanpaina laguntzeko diru bilketa egiten ari dira. Informazioa <http://www.bideakdokumentala.eus/eu/crowdfunding-kanpaina-web-gunean>.

www.iragarkiaburak.eus

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70
@Gruporache
Gruporache
www.tanatoriosirache.es

Nafarroako Herri Kirol Jokoak abian

HERRI KIROLAK Igandean jokatuko da lehen jardunaldia, Txantrean. Andra Mari eta Iñigo Aritza ikastoletako taldeek parte hartuko dute bertan. Sakanak bi jardunaldi hartuko ditu: martxoaren 24an, Etxarri Aranatzan, eta apirilaren 14ko finala, Altsasun

Nafarroako Herri Kirol Jokoak etzi hasiko dira, Txantrean. Guztira 5 jardunaldi jokatuko dira eta horietako bi Sakanan izanen dira: martxoaren 24ko 2. jardunaldia, Etxarri Aranatzan, eta 5. jardunaldia, finala, apirilaren 14an Altsasun jokatuko dena. Ohikoa denez, Sakanako Andra Mari eta Iñigo Aritza ikastoletatik sortutako taldeak lehiatuko dira. Gora doa parte-hartzea eta aurten 11 klub edo elkarteetatik sortutako taldeak lehiatuko dira.

Hiru kategoriatan jokatuko dira Nafarroako Herri Kirol Jokoak: kimuak (11-12 urte), haur mailakoak (13-14 urte) eta kadeteak (15-16 urte). Taldeak mistoak dira.

Proba konbinatueta 38 talde eta sokatiran 16 talde

Nafarroako Herri Kirol Jokoe-tako proba konbinatueta guztira 38 talde lehiatuko dira eta sokatiran, guztira, 16 talde.

Kimuetan dago parte-hartzerik handiena. 20 talde lehiatuko dira proba konbinatuan, tartean Iñigo Aritza ikastolatik sortutako 3 talde eta Andra Mari ikastolatik sortutako 7 talde. Haiekin batera, Araxes, Berriozar, Antsoain, Artzanegi, Igantzi, BRT Menditarrak eta Basaburua-Araxes taldeetakoak ariko dira.



Guztira bost jardunaldi jokatuko dira, horietako bi Sakanan.

Haurren mailako proba konbinatuan, aldiz, 10 talde ariko dira, Andra Mari ikastolatik sortutako 3 talde eta Txantrea, Berriozar, Antsoain, Igantzi, BRT Menditarrak eta Basartza taldeetatik sortutako taldeak. Iñigo Aritza ez da haurren mailako konbinatuan ariko. Haurren mailako sokatiran (480 kg) 9 talde lehiatuko dira, Andra Mari ikastolako 4 talde, Iñigo Aritza ikastolako bat eta Txantrea, Berriozar eta Antsoain klubetatik sortutakoak. Bukatzeko, kadeteen mailako proba konbi-

natua 8 talde jokatuko dute, Iñigo Aritza ikastolako eta Andra Mari ikastolako talde bana, Araxes, Berriozar, Antsoain, Artzanegi, BRT Menditarrak eta Basarnegi taldeekin batera. Kadeteen sokatira txapelketan (540 kg), berriz, 7 talde ariko dira, Iñigo Aritzako bat, Andra Mari bi eta Araxes, Berriozar, Antsoain eta Basarnegi taldeetako talde bana.

Nafarroako Herri Kirol Jokoen 1. jardunaldia igandean jokatuko da, Txantreako Ezkaba plazan, goizeko 10:30etik aurrera.

Valdepeñasen kontra ariko da Osasuna Magna

ARETO FUTBOLA Azken partidaren Zaragozarekin berdindu zuten berdeek baina hirugarren postuari eutsi diote

Osasuna Magna Xotak hiru puntu eskura izatetik puntu batekin konformatu behar izan zuen. Izan ere, akatsak oso garesti ordaintzen dira areto futboleko lehen mailan. Anaitasunakozaleak alde zituela, 4 eta 1 ira-

bazten zihoan Imanol Arregiren taldea, Usinek, Martelek, Martilek eta Saldisek sartutako golei esker, baina tarte laburrean Zaragozak laura berdintzea lortu zuen. Talde berdea zapore garratzarekin geratu zen eta etxean

9 garaipen jarraiko bolada eten zuen. "Puntu bat oparitu diegu eta bi galdu ditugu. Partida hau geuk galdu dugu" adierazi zuen Imanol Arregi entrenatzaileak. "Hobeak izan gara, partida txikitu ahal izan dugu baina ez dugu egin. Arerioa partidaren sartzea uztea ezinezkoa da" gaineratu zuen.

El Pozo Murcia da liderra (54 puntu) eta Osasuna Magnak 3. postuari eusten dio (48 puntu). Bihar sailkapenean 14.a den Valdepeñasen kontra ariko da.

SAKANAKO TOPAKETAK

PARTIDUAK

IGANDEAN BENJAMINEN 8. JARDUNA

URDIAINEN

10:00 Sutegei A - Altsasu C

10:50 Sutegei 1 - Aralar Mendi A

11:40 Aralar Mendi 1 - Altsasu B

12:30 Etxarri Aranatz A - Urdiain

13:20 Etxarri Aranatz 1 - Altsasu A

Sakanako Futbol Topaketak: benjaminak Urdiainen

Igandean Sakanako Futbol Topaketetan benjaminen 8. jardunaldia izanen da jokoan Urdiainen, goizeko 10:00etatik aurrera. Guztira bost partida jokatuko dira. Kimuek atsedean hartuko dute. Sakanako Futbol Topaketak Sakanako Mankomunitateak antolatzen ditu, Sakanako futbol klub eta taldeen laguntzarekin. Futbola sustatzea da helburua, eta txikienei txapelketa batean parte-hartzea ahalbiderratu nahi zaie.

SASKIBALOIA CBASKEK bi partida jokatuko ditu asteburuan

Autonomia Arteko 2. mailan 20. jardunaldia jokatuko asteburuan. Larraonaren kontra aritzekoa zen Altsasuko CBASK taldea, baina inauteriak zirenez, partida atzeratzea erabaki zuten bi taldeek eta astelehenean jokatuko dute, martxoaren 18an, 20:30ean, Larraonako kiroldegian. Aurretik, bihar, larunbatean, 21. jardunaldiko partida jokatuko du CBASKEK Aranguren Mutilbasket taldearen kontra, 20:00etan, Mutiloako Aranguren kiroldegian.

Autonomia Arteko 2. mailako lehen faseko liderra Cenicero La Alcoholera taldea da (32 puntu). CBASK 8.a da sailkapenean (23 puntu).



Neskek egin zuten ohorezko saka. XOTA

FUTBOL PREFERENTEA

22. JARDUNALDIKO EMAITZA

Etxarri Aranatz - Lezkairu 1-1

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Lagunak 44

12 Etxarri Aranatz 26

IMQ KOPAKO PARTIDA

IGANDEAN

19:00 Mutilbera - Etxarri (Mutiloa)

Etxarrik sailkapena du jokoan

Etxarrik Lezkairu hartu zuen. Hasieran hobeto aritu ziren etxekoak eta Darlingek Etxarri aurreratu zuen, baina Lezkairuk ez zuen partida galdutaz eman eta bana berdintzea lortu zuen. Etzi sailkapenean 13.a den Mutilberaren kontra ariko da Etxarri: postua dute jokoan.

FUTBOL ERREGIONALA

1. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Castillo Tiebas - Etxarri Aranatz 1-0

SAILKAPENA

IGOERA FASEKO A. MULTZOA

1 Lagunak B 3

3 Lagun Artea 3

7 Altsasu 0

IGOERA FASEKO 2. JARDUNALDIA

IGANDEAN

16:30 Lagun Artea -Altsasu (Lakuntza)

Igoera faseko derbia jokoan

Igoera faseko 1. jardunaldian, Univ. de Navarra eta Lagun Artea lehia estua izan zuten eta Davilaren eta Unairen golekin garaipena lortu zuten lakuntzarrek. Dantzalekun, Altsasuren eta Ardoiren partida berdinketarekin despedituko zela zirudienean, Ardoik gola sartu zuen. Igandean Lagunek eta Altsasuk derbia jokatuko dute Lakuntzan.

EMAKUM. ERREGIONALA

24. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Kirol Sport 1-2

SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Osasuna Fundazioa 64

13 Altsasu 22

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

15:30 Osasuna - Altsasu (Taxoare)

Altsasu Osasuna liderraren kontra

Etxean jokatuko zuten Altsasuko neskek Kirol Sporten kontra, baina 3 puntuak ezin izan ziren etxean geratu, Altsasuri 1 eta 2 irabazi baitziren Kirol Sportek. Bihar Osasuna Fundazioa lider indartsuaren kontra ariko da Altsasu Taxoaren jokatuko den partida garrantzitsuan.

Aralar taldea, goitik behera eraberritua

TXIRRINDULARITZA Aralar Txirrindularitza Taldeak babesle berriarekin ekingo dio bere ibilbideko 39. denboraldiari: Sakana Group. "Gure kluba goitik behera eraberritu da: izen berria, kolore berriak eta ilusioa" nabarmendu du Alfonso Tadeo presidentek

Aralar Txirrindularitza taldea 1980ko ilbeltzean sortu zen Lakuntzan, Euskal Herriko tropeleko talde beteranoetako bat da eta 39 urte geroago jaioterriak eman dio taldeari aurrera egiteko behar zuen bultzada. "Denboraldi hau berezia da, gure taldea aurten goitik behera berritu delako. Izen berria dugu, kolore berriak eta ilusioa. Ilusioa ez dugu inoiz galdu, baina une oso gogorak pasa eta gero, txirrindulariak trebatzen jarrai dezakegu. Hori baita gure helburu bakarra. Horregatik gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu Lakuntzako Sakana Group kooperatibari, gure taldean konfian-



Sakana Group kooperatibari atera zituzten denboraldi berriko argazkiak.

tza izateagatik, eta berarekin batera gure gainontzeko babesle guztiei, Sakanako hainbat udali eta Mankomunitateari, urtetik urtera gazte hauek txirrindularitza treba daitezten laguntzen gaituztelako eta neska-mutiko hauen gurasoei, taldean konfiantza izateagatik". Horrela hasi zuen 2019ko denboraldiaren aurkezpena Aralar Txirrindularitza Taldeko presidentek Alfonso Tadeok Lakuntzako kultur etxean.

Intersport Irabia 29 urtez jarraian izan zen Aralar taldeko babesle nagusia, baina babesle-tza utzi zuen. "Espero dezagun Sakana Group babeslea urte askotarako izatea. Oso pozik eta eskertuta gaude. Herriko enpresa bat babesle nagusia izatea polita da, pentsatzen dut beraiendako ere hala izango dela. Berrikuntzekin gogotsu gaude" gaineratu zuen Tadeok.

Denboraldia ongi hasi du Sakana Group-Aralar taldeak. Junior mailako lehen proba, Villatuertakoa, Aitor Alberdi arbi-zuarrak irabazi zuen. Aurten 46 txirrindulari trebatuko dira taldean, 32 eskoletan, 6 kadeteetan eta 8 juniorretan.

Guztira 10 juntakidek osatzen dute Aralar taldeko zuzendaritza batzordea: Alfonso Tadeo presidentek, Mariasun Erdozia idazkariak, Javier Etxarri lehendakariordeak, Laura Sainz diruzainak, eta Alberto Martinez, Jose Maria Cerviño, Josune Zabala, Nerea Bergera, Marixa Zabala eta Josetxo Astitz bokalek.

5 lasterketa

Aralarrek 5 lasterketa antolatuko ditu aurten, eskola mailako hiru –ekainaren 1ean Irurtzunen, (Nafar Kirol Jolasak), ekainaren 8an Etxarri Aranatzan eta abuztuaren 3an Lakuntzan–, abuztuaren 27an Lakuntzan jokatu den kadeteen proba eta ekainaren 15ean Lakuntzan erabakiko den emakumezkoen lasterketa. Horretaz gain, Ermitagaña klubari laguntza emango diote abuztuaren 7an Etxarri Aranatzan jokatu den juniorren Iruñeko Itzuliko etaparako. Kadeteak eta juniorrak martxan daude baina eskolakoak martxoaren 16an hasiko dira entrenatzen, larunbatetan eta igandean, goizeko 10:00etan, Lakuntzako industrialdean.



Izen eta kolore berriak

Aralar Txirrindularitza Taldeak izen eta maillot berriarekin ekingo dio 2019 denboraldiari: Sakana Group-Aralar. "Une gogorak pasa eta gero, txirrindulariak trebatzen jarrai dezakegu. Hori da gure helburua" azaldu zuen aurkezpenean Alfonso Tadeo presidentek. Taldearen 39. denboraldi honetan 46 txirrindulari trebatuko dira, gogotsu.



2019

Eskolak (32): Promesak (3): Nagore Azanza, Iñaki Ayucar eta Lander Gorriti. Entrenatzaileak: Txomin Huarte eta Etxarriko. **Hasiberriak (7):** Unax Etxeberria, Ekai Erdozia, Urko Oiarbide, Garbiñe Arregi, Ion Unai Gonzalez, Xabier Gorriti eta Adur Verdugo. Entrenatzaileak: Xabier Etxeberria eta Iban Verdugo. **Kimuak (9):** Ibai Arana, Oihan Gorriti, Janitz Zufiaurre, Manex Huarte, Luca Martinez, Aimar Azanza, Ekain Navarro, Lier Verdugo eta Iker Martinez. Entrenatzaileak: Juan Bautista Urtasun eta Egoi Martinez. **Haurrak (13):** Manex Zufiaurre, Achraf Sbai, Aritz Oiarbide, Anartz Garcia de Albeniz, Xabier Yeregui, Adrian Martinez, Aritz São Roque, Bakarne Arregi, Eñaut Oiarbide, Leire Urtasun, Gabriel Iurtia, Ion Lizarraga eta Alain Rosado. Entrenatzaileak: Alberto Martinez eta Ivan Gonzalez. **Kadeteak (6):** Jon Erdozia, Martzel Etxeberria, Aitor Ondarra, Mikel Yeregui, Alex Lopetegi eta Aimar Tadeo. Entrenatzaileak: Edi Cerviño eta Alfonso Tadeo. **Juniorrak (8):** Urko Gorriti, Inhar Astitz, Aitor Alberdi, Asier Irujo, Igor Arrieta, Mikel Lizasoain, Sendoa Jauregi eta Unax Miranda. Entrenatzaileak: Edi Cerviño eta Javier Etxarri.

KOLABORATZAILEAK: SAPREM – TALLERES JUGA – MECANIZADOS IRURZUN – CONSTRUCCIONES LEGARBE – ARRIBICI – CICLOS MURUZABAL – FLORISTERIA LOREA – DYA – LAKUNTZAKO UDALA – ARBIZUKO UDALA – ETXARRI ARANAZKO UDALA – IRURTZUNGO UDALA – UHARTE ARAKILGO UDALA – SAKANAKO MANKOMUNITATEA – BORDA ERRETEGIA – XALOK – ROTUGRAFIK – FUTSAL – ARALAR FERRETERIA – TRANSARREGUI



Burundaren Udaberri Saria dago jokoan etzi

TXIRRINDULARITZA Burunda Txirrindularitza Taldeak junior mailako XXXIV. Udaberri Saria antolatu du igandean. Lasterketa 10:30ean abiatuko da Altsasuko udaletxe paretik eta bertan despedituko da. Aralar eta Burunda taldekoak bertan ariko dira

Burunda Txirrindularitza Kluba antolatuta, igandean XXXIV. Udaberri Trofeoa jokatuko da Altsasun, junior mailako txirrindulariek denboraldi honetan Nafarroan jokatuko duten bigarren lasterketa. Proba goizeko 10:30ean abiatuko da Foruen plazatik (80 km).

Txirrindulariek hasieran Ziordiraino joko dute, buelta hartu eta Etxarri Aranatzaraino iristeko. Han, norabidez aldatu eta atzera ere Burundarantz egingo dute, Ziordiraino, buelta hartu eta Olaztitik Altamira lehenengoz igotzeko. Altsasutik jaitsiz, Iturmendiraino iritsiko da tropela. Bertan buelta hartu eta Ziordiraino joango dira berriz txirrindulariak, bigarren Olaztitik Altamira igotzeko. Handik jaitsita, atzera ere Olaztira sartuko da tropela, Altamira hirugarrenez igotzeko. Azkenik, portua jaitsita Altsasuko udaletxe aurreko helmugaraino joko dute txirrindulariek.



Aurreko urtean Mikel Retegi gailendu zen Altsasun. TOÑO DE LA PARRA

ALTSASUKOA JUNIORREN NAFARROAKO EGUTEGIKO BIGARREN PROBA IZANEN DA

Aurreko urteko Udaberri Sarian, esprintean, Lizarte-Ermitagaña taldeko Mikel Retegi gailendu zen. Burundako Quesos Albeniz taldeko Ailetz Lasa lau-garrena sailkatu zen eta Aralar InterSport Irabia taldeko

Josu Etxeberria bosgarrena. Aurten ere etxeko taldeak, Burundako Quesos Albeniz taldeak, eta bizilagunak, Aralar taldeko Sakana Group taldeak, bertako trofeoa lortu nahiko dute.

Aramendia 43.a Goierri

Asteburuan afizionatuen 23 urtez azpiko Lehendakari Txapelketarako baliagarria den lehen lasterketa jokatu zen, Goierriko Itzulia. Goierriko TB-Laboral Kutxako Mikel Paredesek irabazi zuen proba (2:47:18). Bere taldekide Eneko Aramendia iturmendiarrak 43.a sailkatu zen, 29 segundora, eta Rural Kutxan dabilen Josu Etxeberria iturmendiarrak 46.a, 1:48ra. Ailetz Lasa ziordiarra (Goierriko TB-Laboral Kutxa) 69.a iritsi zen, Alex Uncilla (Telcom 84.a eta Iker Cerviño (Telcom) 86.a.

Izagirrek agur Paris-Nizari

Gorka Izagirrek Paris-Niza lasterketa utzi egin behar izan zuen astelehenean jokatutako bigarren etapan. Ziordian bizi den gipuzkoarrak erorikoa izan zuen. Ezkerreko ukondoan, saihetsetan eta ezkerreko aldakan kolpeak izan zituen, hausturarik ez, ordea.

6.200 emakume Donostiako Lilatoian

ATLETISMOA Sakandarrak bertan izan ziren. Altsasuko Lilasterketa martxoaren 31n jokatuko da

Igandean jokatu zen 30. Donostiako Lilatoia (4,7 km). Adin guztietako 6.200 emakumek parte hartu zuten bertan, eguraldia lagun eta sekulako giroarekin. Urtetik urtera gorantz doa parte-hartzaile kopurua. Tartean zegoen sakandar koardila bat. Ibilbidean barne musika eta aldarrikapen giroa izan zen nagusi. Lorea Aiala donostiarra izan zen azkarrena; 17 minutu eskas behar izan zituen ibilbidea osatzeko (17:02). Sakandarren artean Maitane Txueka arbizuarra izan zen azkarrena, 1.373. postuan (30:59).

Altsasuko Lilasterketa, martxoaren 31n

Altsasuko Udalaren Emakume eta Berdintasun batzordeak Martxoaren 8an antolatutako ekitaldien barruan dago martxoaren 31n eguerdiko 12:00etan jokatuko den VI. Lilasterketa. Bertan parte-hartzeko deia egin zaie emakume guztiei. Korrikan, bizikletan, patinetan, gurditxoan, gurgildun aulkian, oinez... nahi den moduan parte har daiteke, helburua "emakumeak ere kiroltan" leloa azalaraztea baita. Animatzeko eta bertan parte hartzeko deia egin zaie Sakana-ko emakumeei.

Duatloia: Altsasun eta Arbizun izena emateko azken egunak

DUATLOIA Altsasuko Duatloirako izena ematea martxoaren 18an despeditzen da eta Arbizukoa 25ean

Asteburu barru, martxoaren 23an, IX. Altsasuko Copreci Duatloia jokatuko da, Sakana Triatloi Taldeak hainbat babesleren laguntzarekin antolatutako proba.

Goizeko 10:30ean kategoria txikikoen probak jokatuko dira Txioika ikastolako inguruetan, Nafar Kirol Jolasetarako (NKJ) baliagarriak izango direnak, eta arratsaldean, aldiz, nagusien txanda izango da, sprint distantziako proban: emakumezkoak 15:45ean abiatuko dira Foru Plazatik, gizonezkoak 15:51ean eta erreleboak 15:52ean. Guztiek 5

km korrika, 22 km bizikletan eta 2,5 km korrika osatu beharko dituzte.

Federazioan eman behar da izena

Altsasuko Duatloian izena emateko azken egunak dira hauek. Izena ematea Nafarroako Triatloi Federazioko web gunean egin behar da (www.navarratriatlon.com/triatlon/competiciones.aspx) martxoaren 18ko 23:59ak arte. Federatuek 22 euro eta federatu gabekoek 26 euro ordaindu beharko dituzte. NKJ-erako



Altsasukoa hurrengo astean jokatuko da.

baliagarriak diren kategoria txikiko probetan aritzeko izena ematea toki eta epe berberean egin behar da, baina kasu honetan izena ematea dohainik da.

Arbizukoa martxoaren 30ean

Altsasuko Duatloia jokatu eta aste batera, martxoaren 30ean, 16:00etan, XXII. Arbizuko Duatloia jokatuko da, Arbizuko Udalak hainbat babeslerekin antolatutakoa. Herri lanak dirrela eta, aurten ibilbidean aldatetak izango dira eta proba sprint distantzian jokatuko da (5,6 km korrikan, 24 km bizikletan eta 2,8 km korrikan). Izena ematea zabalik dago Nafarroako Triatloi Federazioko web gunean, martxoaren 25eko 23:59ak arte. Federatuek izena ematea martxoaren 18a baino lehen egiten badute 15 euro ordaindu beharko dituzte, eta 18tik aurrera, aldiz, 20 euro. Federatu gabekoek martxoaren 18a baino lehen inskripzioa egiten badute 20 euro ordaindu beharko dituzte eta 18tik aurrera, aldiz, 25 euro.

Sakandarrak

Sakandar taldetxo bat Donostian aritu zen.

Sakandarrak Lilatoian (4,7 km)

1.Lorea Aiala (Donostia)	17:02
1.373.Maitane Txueka	30:59
1.383.Iolanda Navarro	31:00
2.371.Jaione Mendinueta	33:35
2.373.Nerea Berastegi	33:35
4.231.Josune Erauskin	38:07
5.197.Maitane Ezkurdia	40:40



Iganderako antolatu den III. Arbizuko Zumbathon solidarioa Perthes duten familien elkartearen (Asfape) aldekoa izango da aurten. ARBIZUKO ZUMBATHOIA

Zumbathoirako prest Arbizun

ZUMBA Igandean goizeko 11:00etan emango zaio hasiera III. Arbizuko Zumbathon solidarioari, Perthesa duten familien elkartearen (Asfape) aldeko ekimenari. Ordu bat lehenago, goizeko 10:00etan, Arbizuko haur lasterketa solidarioa antolatu dute

Aurten ere Zumbathon solidarioa izango da Arbizun. Iganderako, martxoaren 17rako antolatu dute. Kirol ekitaldia goizeko 11:00etan hasiko da Arbizuko kiroldegian, eta aurten Perthesa duten familien elkartearen (Asfape) aldeko ekimena izango da. Lehenengo edizioa esklerosi anitza daukan emakume bati laguntzeko egin zen eta bigarrena bularreko minbizia duten emakumeak biltzen dituen Saray erakundearendako.

Hiart Leitza eta Anabel Arraizak aurkeztuko dute ekitaldia eta Carolina, Ainhoa, Maria, Itziar eta Mayra monitoreek prestatutako koreografie jarraiango dute izena ematen dutenek, primerako giroan. Ainara eta Charles ere gonbidatuak izango dira ekitaldira. Bitartean, zozketak izango dira: Ezkurdia eta Irujo pilotarien kamisetak –au-

reikusten da Irujo bera Arbizura hurbilduko dela bere kamiseta ematera... Xota eta Lagun Artea taldeen kamisetak, Osasunako produktuak, hainbat produkturen loteak... eta abar. Zumbathoian parte hartuko dutenek 5 euro ordainduko dituzte eta ikusleek 2 euro.

Aurretik, goizeko 10:00etan, Arbizuko haur lasterketa solidarioa

Arbizuko Zumbathoia hasi aurretik, Arbizuko haur lasterketa solidarioa antolatu dute, goizeko 10:00etan. 1,2 km-ko proba herrikoia izango da, kiroldegian hasi eta despedituko dena, Perthesa duten familien elkartearen aldekoa eta "Zure izenean korrika" lelopean jokatuko dena. Izan ere, Perthes gaitza duten umeek korrika aritzeko debekua dute, eta horregatik, lasterketa honetan

adin guztietako korrikalariek dortsalean perthesdun umeen izenak eramango dituzte, haien orde modu sinbolikoan korrika egiteko. Dorsalak 3 euroko balioa du eta dortsal hau zumbathoian sartzeko eta zozketetan parte hartzeko baliagarria izango da. Ondoren, argazkiak egingo dituzte eta Perthes gaitza duten ume horiei bidaliko zaizkie argazkiak. Dorsal salmenta egiten goizeko 9:30ean hasiko dira.

Jasotako guztia Asfape elkartearendako

AURRETIK, GOIZEKO 10:00ETAN, HAUR LASTERKETA SOLIDARIOA JOKATUKO DA

Arbizuko lasterketa solidarioa eta zumbathoian jasotzen dena Asfape elkartera bideratuko da. Asfapek Perthes gaitza duten familiak biltzen ditu. Elkartearen bi familia sakandar ere badaude, Oihaneren eta Oihanen familiak, eta ilusio handiz hartu dute Arbizuko Zumbatho solidarioaren ekimena.

"Arbizuko zumba taldekoek Zumbathon solidarioa Asfaperen alde egiteko proposamena egin zigutenean berehala eman genuen baiezkua. Oso gustura ari gara antolatzen ekimena, elkarlanean. Gainera, Iruñeko Geltokin Perthes gaitzaren inguruko eta aurreko zumbathoien inguruko argazki erakusketa ere egin genuen" adierazi zuen aurreko asteko Guaixeko 11 Galderetan Estitxu Ruizek, Perthes gaixotasuna duen Oihaneren amak.

Perthes gaixotasuna, Legg-Calvé-Perthes izenez ere ezaguna da. Bigarren izen horrek hiru medikuk hiru leku desberdinetan emandako izenari erreferentzia egiten dio. 1910. urtean eman zioten izena hiru medikuek. "Finan, odol arazo bat da. Hezurrarekin lotuta dago, baina jatorria odolarena da. Momentu batean odol jariora eten egiten da eta izerrezurraren burura ez da iristen. Horren ondorioz, bertako zelulak hiltzen dira, nekrosi bat gertatzen da, eta, beraz, higadura bat. Ez dakite ongi zerk sortzen duen" azaldu zuen Estitxu Ruizek. "Zelulak hil egiten dira eta hezurra hausten da.

Azkenean hezurrek bizitza dutenez, berriz odol jariora hasten da eta hezurra bere kabuz birsortzen da" gaineratu zuen Iranztu Osinagak, Oihanen amak.

Gaixotasun hau jasaten duten haurrei izerrezurraren burura uneren batean odol jariora ez zaie iristen eta hezur horretako zelulak hil egiten dira. Horren ondorioz higadura gertatzen da. Hiru urte eta hamalau urte bitartean diagnostikatzen da, eta mutikoetan ohikoagoa izaten da. Higadura hori gertatzen denean, zonalde hori sendatzeko aukera dago, zelula berriak sor daitezke, baina oso ongi zaindu behar da, aldakan ahalik eta eragin gutxien sortzeko.



Koreografia ezberdinak prestatu dituzte.



Olazabal, Ongay, Ollo eta Bergera pilotariek eta Irurtzun klubeko arduradun Migel Berazak jaso zuten saria. PILOTA BIZI

Irurtzun Euskal Herriko klubuen arteko txapelduna

PILOTA Euskal Herriko Klubuen Arteko finalean, Oberenaren kontra meritu handiz irabazi zuen Irurtzunek, jokoan zeuden hiru partidetatik bitan gailendu eta gero. 3.000 euroko saria jaso eta txapel preziatua lortu zuten irurtzundarrek

Igandean jokatu zen Euskal Herriko Klubuen Arteko V. Txapelketa Nazionaleko finala. Pilotabizi Pelotazaleen Elkarteak antolatutako txapelketako finalak interes handia piztu zuen eta pilotazale asko bildu ziren Tolosako Beotibarren. Irurtzun eta Oberena klubek jokatu zuten finala: pilotari beteranoak pilotari belaunaldi berriaren kontra.

Lehenik eta behin lau t'erdiko partida jokatu zen. Oberenako Canabalek 18 eta 13 irabazi zion Irurtzun klubeko Olazabali. Beraz, txapela lortzeko aukerak izateko buruz burukoan irabaztera derrigortua zegoen Irurtzun. Alberto Ongay satrustegiarrak ez zuen huts egin eta 6 tantotan

utzi zuen Oberenako Irurita. Bana berdinduta, binakako partidak erabaki zuen. Oskozek eta Aldabek ordezkatu zuten Oberena eta Ollok eta Iosu Bergera arruazuarrak, aldiz, Irurtzun. Partida oso lehiatua, azkenean 17 eta 22 irabazi zuten Ollok eta Bergerak eta Euskal Herriko Klubuen Arteko txapela Irurtzuna etorri da.

LAU T'ERDIKOA GALDU, BAINA BURUZ BURUKOA ETA BINAKAKOA IRABAZI ZITUEN IRURTZUNEK

Euskal Herriko klubuen arteko txapel preziatuarekin batera, sari potoloa lortu du Irurtzun klubak: 3.000 euro.

Pablo Lopez de Goikoetxeari errekonozimendua

Finalak hasi baino lehen, Pilotabizi Pelotazaleen Elkarteak oroigarria banatu zien Euskal Herriko pilota klubetako 8 ordezkariari, euren klubetan egin duten lan handia eskertzeko eta pilotaren alde bere lan eskuzabala aitortzeko. Oroigarria jaso zutenen artean zegoen Sociedad Deportiva Alsasuako (SDA) Pablo Lopez de Goikoetxea. Oso esker-tuta eta hunkituta jaso zuen aitortza.



Irribarria-Zabaletak eta Altuna-Martijak partida ikusgarria eskaini zuten. MIKEL ASKASIBAR

Martija: "hil hala biziko partidak jokatzeko bi hilabete daramatzagu"

PILOTA Binakako finalerdiko 2. jardunaldian irabaztera behartuta dago Martija. Zabaletak lehen puntua dauka

Binakako Txapelketako finalerdietako lehen jardunaldian Iker Irribarriak eta Jose Javier Zabaletak 16 eta 22 irabazi zieten Jokin Altunari eta Julen Martijari. Atzean ikusgarri aritu ziren bi arakildarrak, baina partidak aurrera egin ahala gehiago dominatu zuen Zabaletak. Beste partidatan, Elezcano II.ak eta Rezustak 12 tantotan utzi zituzten Victor eta Albisu.

"Irribarriak eta Zabaletak izugarri astindu zuten pilota eta ez zuten akatsik egin; horrela, zaila da eurak irabaztea. Baina guk tanteo ona lortu genuen, eta sentsazio onekin gaude, larunbateko partida jokatzeko gogotsu" aipatu zuen Martijak asteazkeneko material aukeraketan. Larunbatean, Labriten, lehen jardunaldiko galtzaileak ariko dira elkarren kontra. Victor eta Albisu izango dituzte aurkari Altunak eta Martijak. "Hil hala

bizikoa da, baina ligaxkako bigarren itzuliko partidak horrela jokatu ditugu; bi hilabete daramatzagu hil hala biziko partidak jokatzeko" nabarmendu zuen Julen Martijak. Nolanahi ere, partida zaila izango dela argi du arakildarrak. "Albisuk oso atzean jartzen du pilota, eta Victorrek ere asko atzeratzen du. Atzean egotea tokatuko zait, baina ongi nago eta gure aukerak izaten baditugu Jokinek aurrean asmatuko du, eta ea zorrea dugun eta partida ona egiten dugun" gaineratu zuen.

Lehen jardunaldiko irabazleek, Irribarria-Zabaletak eta Elezcano II.a-Rezustak, igandean Bilbon jokatu dute elkarren kontra. Bi biko hauek dira finalean egoteko favorito nagusiak, eta etzi bigarren puntua irabazten duenak finalean egoteko txartela eskura du. Hortaz, katedraren ikusmina handia da.

EHko palista txapeldunak

PALA Larunbatean Emakumezkoen Gomazko Paletako Euskal Herriko Irekiko finalak jokatu ziren Mallabian. 3. mailako finalean Gure Pilotako Uxue Biainek eta Naroa Otxoak 24 eta 30 irabazi zieten Arbizuri eta Senosiaini eta 1. mailako final handian Gure Pilotako Irati Igoa etxarriarrak eta Espinalak 30 eta 28 hartu zituzten mendean Murga eta Perez de Arriluzea.



Omenaldia ere izan den antzezlana

Irurtzongo Antzerki Tailerrak 'Mujeres de casa vieja' antzezlana eginen du gaur, bihar eta etzi. Guztira, lau emanaldi eginen ditu. Saio bereziak izanen dira, gainera, Peio Alzueta tailerraren kidearen "hutsuneari" aurre egin behar izan diotelako

IRURTZUN

Taldeko kide zen Peio Alzueta Labianoren heriotzak markatu du Irurtzongo Antzerki Tailerraren jarduna. Angel Sagues da beste urte batez tailerraren zuzendaria, eta Peiok utzitako "hutsunea" bizi izan dutela esan du. Horregatik, aurtengo antzezlaren emanaldia berari eskainiko diote. "Eta antzezlaren aukeraketak ere horrekin zerikusia du: jendea, bizitza nola pasatzen den...". Baina, bereziki emakumeekin erlaxionatuta dago. Emakumeak dira protagonistak *Mujeres de casa vieja* antzezlanean. Gaur, ostirala, 19:30ean eta 22:00ean; bihar, larunbata, 20:00etan, eta etzi, igandean, 19:00etan izanen dira emanaldiak Irurtzongo kultur etxean.

Adin eta egoera desberdineta emakumeak dira *Mujeres de casa vieja* antzezlaren protagonistak. "Peio ez zenez egongo, gizonik ez egotea erabaki genuen". Beraz, eszenara ateratzen diren pertsonai guztiak emakumeak dira. "Garai bateko emakumeak dira. Gizonzkoengandik oso baldintzatuta bizi diren emakumeak". Egoera horretan bizitzeagatik sentitzen duten grinak, frustrazioak eta abarrak ateratzen dituzte.

Angel Sagues Irurtzongo Antzerki Taldearen zuzendaria antzezlaren egilea eta ikuskitzaren zuzendaria ere bada. Hegoamerikako autore baten testuen adaptazioa egin du tailerraren beharretara egokituta. "Adaptazioak egin behar ditugu normalean, errepertorio askotariko delako. Bat-batean bi gazte daude eta beste guztiak helduak...". Tailerreko aktoreen araberrako eszenak idatzi behar direla azaldu du zuzendariak.

Hamar pertsonen antzeztuko dute *Mujeres de casa vieja* antzezlana. Bi gizon eta zortzi emakume. Hala ere, antzezla-



Irurtzongo Antzerki Tailerreko kideak. UTZITAKO

ANTZEZLANA MATXISMOAREN METAFORA BAT DA, ETA EMAKUMEAK DIRA PROTAGONISTAK

naren pertsonai guztiak emakumeak izan dira. Protagonistak bi ahizpa dira, Celina eta Leonora, eta haien istorioa kontatuko dute. Hortaz, flashback-en bidez etxe zaharrean bizitutako istorioak gogoratuko dituzte. Bertan, emakume bixiak agertuko dira: Francisca, ahizpen ama; Jacinta eta Victoria, Franciscaren ahizpa bikiak; Maria, amona; Gurmensinda eta Adriatica, amonaren ahizpak; Chiquita birramona, eta Blanquita neskamea. Aktoerekin eta zuzendariarekin batera hainbat laguntzaile egongo direla esan du Saguesek. Baita Patxi Mikeo kultur teknikariak egiten duen lana eskertu nahi du ere.

Belaunaldi ezberdineta emakumeak agertzen dira eta existentziaz hitz egiten dute. Antzezlana matxismoaren metafora bat

dela azaldu du Saguesek, izan ere, etxea sistema matxista "zapaltzailea eta itxiaren" adierazlea da, eta "denek nahi dute etxe horretatik alde egin".

Hutsune garrantzitsua

"Gauzak gertatzen dira eta onartu behar ditugu". Peio Alzueta heriotza "gogorra" izan dela onartu du Saguesek. Hutsunea utzi du Antzerki Tailerrean. "Gizon honek taldean zuen presentzia izugarria zen eta tailerra egiten zuen ilusioarekin eta sustatzen zuen". Beraz, Alzueta gabeko lehenengo entseuetan "ez zegoela ikustea zaila izan zen". Hortaz, asteburuan eginen duten ikuskitzaren "atmosfera" sentimendu hori jasotzeko baliagarria izan behar zen.

Gaur, mustutzean, "dena aterako" dute tailerreko kideak. Emanaldia hasi aurretik bideo txiki bat proiektatuko dute Alzueta erakusten omenez, "bere oroitza-penean". Bertan, Alzueta antzerki tailerrean egindako lana erakutsiko dute, eta Irurtzongo herriarekin konpartituko dute, izan ere, Alzueta "hutsune handia utzi du herrian ere".



Carlos Riverak eta Julian Lopez de Abetxuko egin duten lana. UTZITAKO

Altsasuko "injustizia" Madrilen artearen bidez salatzen

Carlos Rivera Lauria artistak Altsasuko auziko gazteen aldeko artelana jarri du ARCOko erakusketa

ALTSASU

Carlos Rivera Lauria artista argentinarra Altsasun bizi izan zen. Ardebide elkarteko sustatzaileetako bat izan zen, eta haren lanak Altsasuko Arte Azokan ere erakutsi dira. Orain, Madrilgo ARCO arte garaikidearen erakusketaren barruan egiten den ARCO Vip erakusketan *Migraciones* erakusketa egin du. Eta bertan erakutsiko zuela aprobetxatuz, Altsasuko "injustizia" artearen bidez erakustea ere erabaki zuen. Bat-bateko kontua izan zen, Riverak azaldu bezala.

Zapadores Ciudad del Arte XXI. mendeko museoa "leku zoragarria" dela esan du Riverak. Garai bateko armadaren tren geltokia zen eta, orain, erakustoki bihurtu dute. Hortaz, ARCO arte garaikidearen erakusketa ospetsuaren baitan ARCO Vip erakusketa antolatzen dute bertan eta Riveraren *Migraciones* bilduma erakustera gonbidatu zuten. Erakusketa honekin Italian egon berria zen, eta "norbaiti gustatu omen zitzaion, eta gonbidatu ninduten".

Madrilgo arte garaikidearen erakusketa arteagatik baino, bertan erakusten diren artelan polemikoengatik da ospetsu. Iaz, esaterako, Santiago Sierrak Espainiako estatuko preso politikoaren inguruko bilduma egin zuen eta erretiratua izan zen. Aurten, lan hori ARCO Vip espaziora iritsi da. Espazio horretan bertan erakusten du Riverak

Migraciones lana, migrazioari buruzko artelanak. Espazio hori aprobetxatuz, Altsasuko gazteek bizi duten injustiziaren aurrean "zerbait" egin zezakeela iruditu zitzaion.

Zutabe bat Altsasuko auzian auzipetutako gazteen izen abizenekin idatzita ikusi daiteke. Zapadores Ciudad del Arte Riverak duen erakusketaren sarreran. Julian Lopez de Abetxukorekin batera idatzi zituen gazteen izenak. Altsasun bizitzen ari den injustizia kaleratzeko modu bat dela esan du Riverak. Bertan erakutsitako bildumarekin zerikusirik ez du.

Artelana ez da polemikoa izan, Riverak esan duenez, baina sare sozialetan jendea zutabearekin argazkiak egin dituela eta elkarbanatu dituela esan du. Egunkari batean agertu zelako egin zen ezagun.

Joan-etorriak

Migraciones erakusketaren oinarrian txoriak daude. Izan ere, txoriak izaki migranteak dira. Txoriak bezala, bada jendea bere sorterrira uztera derrigorritu dagoena, bizitza hobe baten bila etengabe mugitzen den, jakin gabe "han edo hemen" duena hobe izango den, Riverak azaldu bezala. Beste leku batera mugitzea erabakitzen den momentuan erabaki bakoitzak "ilusioaren eta kostu handiaren" mugak frogan jartzen ditu. Erakusketa martxoaren 17ra arte egonen da Zapadores-en.



Haur eta Gaztetxo Kantarien emanaldiaren une bat. UTZITAKOIA

Haur eta Gaztetxo kantarien emanaldi "polita"

Larunbatean ospatu zen Haur eta Gaztetxo Kantarien jaialdia, Lakuntzan. 67 artistek parte hartu zuten

LAKUNTZA

Lakuntzako, Leitzako, Lekarozko eta Elizondoko haurrek eta gaztek parte hartu zuten Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantari jaialdiaren aurtengo edizioaren lehenengo jaialdian. Lakuntzan izan zen jaialdia, martxoaren 9an, larunbatean. Hurrengo Tuteran izanen da, martxoaren 16an, larunbatean; eta, hirugarren emanaldia martxoaren 23an izanen da, Antsoainen.

67 haurrek eta gazteek parte hartu zuten jaialdian. Guztira, 6 kantu egin zituzten. Lakuntzako eskolako haurrek bi kanta abestu zituzten; bat 7 eta 8 urteko

haurren taldetxoak eta bestea 8 eta 11 urtekoak. Leitzako Aralar Musika Eskolako Leire Berinagarmenteria eta Olaia Otermin beste kanta bat egin zuten, eta Musika Eskolako Abesbatza Txikiak Natxo de Estebanen letraren moldaketa egin zuen. Elizondoko Baztan ikastolako taldea martxa onarekin abestu eta dantzatu zuen, eta Lekarozko 15 eta 16 urteko hirukoteak gaztelaniazko adarretakoak izan arren, euskaraz abesteko ilusio handia erakustez gain, institutuan bertan beraiek sortutako kanta interpretatu zuten.

Haur poesiaren inguruko lantegia Mank-en

'Haurrak, poesia eta gu' hitzaldi-lantegia apirilaren 6an izanen da eta izena ematea zabalik dago

SAKANA

Yolanda Arrieta Malaxatxeberrria idazle eta literatur dinamizatzaileak *Haurrak, poesia eta gu. Sortu, antzeztu, kontatu, esan* hitzaldi-lantegia egingen du apirilaren 6an Sakanako Mankomunitatean. Sakanako Mankomunitateak antolatatu du haur literaturan murgiltzeko ekimena.

Hitzaldia praktikoa izanen da eta helburuak haur poesia eza-gutzeko modu eraginkorrena frogatzea: sortzen, aurkezten, kontatzen eta esaten. Hortaz, parte hartzaileek hainbat joku eta ariketa egingen dituzte gorputz osoa mugituz.

Haurrak, poesia eta gu hauen-dako bideratuta dago: ikasle, irakasle, hezitzaile, zaintzaile eta bitartekariendako. Hitzaldia apirilaren 6an, goizez, izanen da eta tokiak mugatuak dira. Izena ematea euskara1@sakana-mank.eus bidez egin behar da. Matrikula 10 eurokoa da.



BAZTERRETIK

JUANKAR LOPEZ-MUGARTZA

Lauaxeta Altsasukoa kanpai hotsak plagiatzen

Mikel Zaratek *Ipuin antzeko alegi mingotsak* lanaren hitzaurrean aitortu zuen bezala, liburua idazteko unean Lauaxeta izan zuen bultzalari eta gidari. Idazle hobereenek beren iturriak aipatzen dituzte. Kopiatzea eta aitortzea, eta kopiatuaren izena aipatzea, kopiatua izan denari omenaldi gozosa egitea da, bera maisutzat hartzen dugula aitortzea bezalakoa. Kontrakoa, gauza itsusia da. Plagioa. Besteen arima lapurtzea eta gurea balitz bezala mozorratzea, ihote garaian egonda ere, higuinagarria da.

Mikel Zaratek Lauaxeta aipatu nahi izan zuen berarentzat idazle eredugarria zelako, denok, berarekin batera, berak maisutzat zuena ezagut genezan. Lauaxeta olerkaria izateaz gainera, alegigilea ere izan zen. Zaratek aipatzen ditu *Larrosa eta txarria*, *Gaztaia ta katua...* baina, bereziki, *Udabarriko autorkuntza*. Zaratek bere doinu berezkoa du, bere erritmoa, bere arima, eta beste baten lan batean oinarritu dela ozenki aldarrikatzen badu ere, zaila da sinesten, guztiz alegi pertsonalak baitira. Beste batzuek, berriz,

haratusteljaileek, kontrakoa egiten dute: ixilarazten dute plagiatzen dutena, eta saiatzen dira, saiak baitira, hurkoak ere engainatzen.

Nire adiskide min Iñaki Billelabeitiari eta Jokin Elorriagari esker Mikel Zarate nor zen ezagutu nuen. Biak Zarateren ikasleak izan ziren Deustuko Apeztexean, eta beti hitz egin zidaten lilura osoz haien irakasle on izandako hartaz. Mikel Zarateren bitartez, eta Jon Kortazar Uriarte irakasleari esker, Mungiako olerkariarengana amodioa sortu zitzaidan, eta Lauaxetaren lanak hasi nintzen ezagutzen, irakurtzen eta eredutzat hartzen. Nire lagun bizkaitarren modura.

Eta irakurri nuen, ba, *Arrats beran*, eta Zaratek aholkaturiko alegia: "Din-dan, balendan, elixako atetan, gixon bat dilindan...". Eta askoz ere lehenago idatziak izan ziren arren, lerro horien bitartez Altsasuko kanpaiak bolean irudikatu nituen, duela gutxi gertatu zenaren plagioa balitz bezala. Lehengo egunean ere berriro jo zuten; orain gure izekoren alde. Txan izan zen meza eman zuena. Ni jasaile.

Nafarroako Bertsolari Txapelketak baditu finalistak

Eneko Lazkoz Atarrabiako finalaurrekoan zuzenean sailkatu zen; Saats Karasatorrek ez du sailkatzea lortu

ETXARRI ARANATZ

Gaur aurkeztuko dute martxoaren 23an Iruñeko Anaitasuna kiroldegian jokatu den Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finala. Larunbatean eta igandean izan ziren azken bi finalaurrekoak, Etxarri Aranatz eta Lesakan, hurrenez hurren. Etxarri Aranatz Xabier Terrerosek irabazi zuen saioa, eta zuzenean finalerako sailkatu zen. Lesakan Joanes Illarregik irabazi zuen. Lehenengo finalaurrekoa Eneko Lazkoz etxarriarrak irabazi

zuen. Hortaz, hiru bertsolariek finalerako txartela lortu zuten.

Nafarroako Bertsolari Txapelketa 24 bertsolarik hasi zuten, eta finalean zortzi ariko dira. 18 bertsolari pasa ziren finalaurreko fasera. Eta hemezortzi horietatik finalaurrekoetan hiru irabazleak eta finalaurrekoetan puntuazioaren arabera sailkatutako hurrengo bost bertsolariak ariko dira finalean. Saats Karasatorre etxarriarra hamalagarraren sailkatu da 335 puntuekin, beraz, ez da finalerako sailkatu.

Finalaurrekoen sailkapena

1. Eneko lazkoz 399,0
2. Joanes Illarregi 375,5
3. Xabier Terreros 360,5
4. Eneko Fernandez 359,0
5. Julio Soto 358,5
6. Xabat Illarregi 356,5
7. Julen Zelaieta 355,5
8. Xabi Maia 352,5
9. Aimar Karrika 349,0
10. Saioa Alkaiza 344,5
11. Josu Sanjurjo 341,0
12. Iker Gorosterrazu 338,0
13. Alazne Untxalo 335,5
14. Saats Karasatorre 335,0
15. Sarai Robles 326,5
16. Joana Ziganda 312,0
17. Diego Riaño 307,5
18. Iban Garro 304,5

Ene Kantak taldearen 'Satorjator' ikuskizuna bihar Irurtzunen

Irurtzungo kiroldeagian Ene Kantak taldearen lagunak ariko dira bihar, larunbata, 18:00etan

IRURTZUN

Ene Kantak-ekoek Irurtzunerara itzuliko dira, eta etorri diren bakoitzean arrakastatsua izan dira. Oraingoan, ikuskizun berria eskainiko dute: *Satorjator. Lurraren bihotzera bidaiia*. Bihar, larunbata, izanen da emanaldia, 18:00etan, Irurtzungo kiroldegian.

Erronka handi bat izan zuen Ene Kantak taldeak *Satorjator* ikuskizunaren mustutzearekin, izan ere, Nafarroa Arena pabilioia bete nahi izan zuten. Eta lortu zuten. Pentsa eta egin, izan ere, Nafarroa Arena ez ezik Euskal

Herriko beste pabilioi handiak ere bete zituzten.

Bihar egonen da Ene Kantak Irurtzunen, ongi ezagutzen duten publikoaren aurrean. *Satorjator* azken ikuskizunak Enekoren eta Nerearen bidaiak kontatzen du. Kasu honetan, lurraren erdigunera egiten dute bidaiak eta, bertan, aitatzik emandako mapa bati esker altxor bat aurkitzen dute. Gaur egun sakelako telefonoi eta teknologia berriei eskaintzen zaien gehiegizko denboraz hausnartu nahi du Ene Kantak-en ikuskizunak.



Sara Mazkian. UTZITAKOA

"Filmazioan pelikularen inguruan den dena dakigu"

SARA MAZKIARAN ZINE ZUZENDARI LAGUNTAILEA

Bere lanik gabe filmek ezingo lukete aurrera egin. Sara Mazkian altsasuarra zuzendari laguntzailea da. Filmen aspektu guztiak kontrolatzen ditu

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Zinema betidanik gustatu zaiola esan du Sara Mazkianek. Altsasuko Bengoetxea zineman orduak pasatzen zituen, eta bere ama bila joaten zen jakinda han egongo zela. Zaletasunetik ogibidera pasa zen. Zuzendari gisa hainbat lan egin dituen arren, zuzendari laguntzaile lan egin du, eta izen handiko zuzendariekin lan egin du. Haren jarduna, aldiz, gutxi ezagutzen da. **Zein da zuzendari laguntzailearen lana?**

Gauza asko eginen ditu. Niri gidoi bat iristen zait eta sekuentziaz sekuentzia desglosatzen dut departamentu bakoitzaren beharretara egokituta, eta filmazio plan bat eginen dut. Batzuetan plan hori zuzendariarekin bildu

"INDUSTRIAREN BARRUAN OSO BALORATUTA DAGOEN LANA DA, KANPOAN EZ DA HAIN EZAGUNA"

ondoren eginen da, eta beste batzuetan ez. Gero, aurre-ekoizpean sartzen naiz. Une honetan hainbat departamenturekin bilerak eginen dituzu eta lokalizazioak ikustera joaten gara. Filmazioan dena antolatzen dut. Filma osoa eramaten dut.

Zertan ezberdintzen da zuzendariaren lanarekin?

Oso ezberdina da. Ni zuzendariak nahi duena jasotzen joaten naiz. Informazioa eta eskatzen dutena biltzen dut. Baina zuzendaria itsasontziaren patroia da. Badi-

ra zuzendariak ez diren zuzendariak, horiekin guri lan gehiago egitea tokatzen zaigu. Baina zuzendari on batek filmaren zama guztia eramaten du. Nola filmatu behar den, zer filmatu behar den, entseguak, aktoreak zuzentzen ditu; dena gidatzen du. Baina nire lana da nahi duena bilatzeaz arduratzea eta posible egitea. Dena ongi dagoela txekeatzea eta abar.

Nola hasi zinen zuzendari laguntzaile?

Bitxia izan zen. Madrilera zinema ikastera joan nintzen. Eta gero kurrikuluma Gasteizko udalak EHUrekin batera antolatzen zuen eskola batean bota nuen. Film laburrak egiteko ikastaro bat egin genuen eta Medem zuzendariaren laguntzailea etorri zen trebakuntza bat egitera. Zuzendari laguntzaile oso ona zen. Orduan, bera etorri zen guk eskola gisa egiten genituen film-labur horiekin laguntzera. Ezagutu ninduen, fitxatu ninduen eta harekin hasi nintzen lanean. **Zuzendari laguntzailearen lana ez da oso ezaguna.**

Oso baloratuta dago industriaren barruan. Baina jendearen artean ez da asko ezagutzen normalean ezagutzen direlako beste lan batzuk: argazki zuzendaria, jantzieria, estilista, arte zuzendaria... makilatzaileak ere, esaterako, ez dira oso ezagunak. Eta haien lana oso garrantzitsua da. Badi-rudi departamentu batzuetako buruak ezagunagoak direla beste batzuen bano. Beraz, zuzendari laguntzailea itzaletan dagoen pertsonaia bat da, baina pelikularen zama eramaten dugu gainean. Dena mugitzen dugu. Dendena dakigu.

Zuzendari laguntzailea izateko zer-bait berezia behar da?

Ez dakit. Langile ona izan behar zara, lan handia egiten delako, odol hotza izatea ere garrantzitsua da batzuetan bat-bateko erabakiak hartu behar direlako. Eta gero ere langileburu ere izan behar zara. Orduan, intuizioa izan behar duzu. Baita memoria ere. Arlo artistikoan sentsibilitatea izan behar duzu. Jakin behar duzu zer doakion hobeki gauza bati

"ZUZENDARI ON BATEK FILMAREN ZAMA ERAMATEN DU, TXARRAK ERE BADIRA"

edo besteari. Departamentu guztietakoa jakin behar duzu.

Zuzendaria ere izan zara.

Film laburrak egin ditut. Aktore askorekin tratatzen dut eta koordinatzen ditut eta asko ikasten duzu. Beraz, zinema gustatzen bazaizu eta zure gauzak egiteko gogoia izan baduzu, azkenean ausartzen zara. Hiru film labur egin nituen. Lehenengoak Nafarroako Gobernuko diru laguntzekin eta gero Canal Plusen irabazi nuen sari batekin..

Kresala V. Saria jaso zenuen. Zer dakar du errekonozimendu honek?

Sari batek beti ilusioa egiten dizu. Deitu zidatenean lan handia neukan eta esan nien oso gaizki harrapatzen nindutela eta ezin banuen joan beste bati emateko. Gero antolatu nintzen eta egon nintzen. Gainera, Kresalakoek urte asko daramatzate karteldegira ateratzen ez diren filmak proiektatzen; kultura zinema eta jaialdietan dauden filmak, baina sare komertzialetara iristen ez direnak. Urte asko daramatzate zikloak egiten eta oso pelikula onak proiektatzen dituzte. Beste modu batean ikus daitezke, baina pantaila handian ikusiz eta hori oso baliagarria da.

Zein proiektorekin zaude orain?

El silencio de la ciudad blanca filma egiten arituen nintzen. Pelikula handia da eta asko disfrutatu dut. Istorioa indartsua zen. Orain bukatu berri dut komedia berri bat Santiago Segurarekin. Aste honetan Argentinako zuzendari batekin Akelarre filma hasiko dut. Casting indartsua egin dute.

Filmaren sekretu guztiak ezagutu-ta, eta filmazioan lan egin ondoren, filma ikustean sorpresarik dago?

Sorpresa beti dago, baina bada-kizu zer egin duzun. Gero muntai- an gauzak aldatzen dira. Leku batean egon behar ziren gauzak beste leku batean daudela ikusten dituzu, ordena aldatzen dute.

Eta zinema gustatzen zaizu?

Zinemaren eta telesailen yonkia naiz. Bengoetxea zinemetatik. Ordu asko sartu ditut nik han. Lau egoten ginen. Ama nire bila etortzen zen bazekielako han nengoela. Energia handia ematen dit kontzertu batek, antzezlan batek edo pelikula on batek. Film batean garrantzitsuena gidoi on bat da. Badira gaizki eginak diren pelikulak, baina istorioak ikaragarriak direnak.

11 GALDERA

"Sakanan 71 km izango ditugu korrika egiteko"

Ihoteak despeditu eta tik, tak, tik, tak... Korrikarako atzerakontua hasi da. Apirilaren 4an hasiko da Korrika, Garesen eta 14an Gasteizera helduko da. Aitor Irigoien Korrikako Sakanako arduradunak prestakuntzen berri eman du

Eneida Carreño eta Maider Betelu
ALTSASU

1 Apirilaren 4an abiatuko da Korrika, 'Klika' lelopean. Noiz pasako da Sakanatik?

Apirilaren 8tik 9rako gauean, goizaldeko ordu batean Aizkorbetik sartuko da Korrika Sakanara, hori izango da 1063 kilometroa, eta puntatik puntara zeharkatuko du ibarra, Ziorditik 05:37an Arabako Lautadara jozteko. 1.128 kilometroa izango da sakandarren azkena.

2 Beraz, gauez pasako da Korrika guretik, beste behin...

Bai, baina gauak badauka bere xarma, Sakanan beti ateratzen da jendea. Umorez hartuko dugu, ez dago besterik.

3 Nola doa Korrikaren antolakuntza gurean?

Nahiko ondo, Korrika badao aurrera.

4 Eta kilometroen salmenta nola doa?

Sakanan aurten 71 km ditugu euskararen alde korrika egiteko eta dagoeneko guztiak saldu ditugu, 3 km izan ezik. Hiru falta dira saltzeko.

5 Noizbait gelditu da Sakanan kilometroren bat erosi gabe?

Nik esango nuke ez dela kilometrorik gelditu saldu gabe sekula. Aurten, Korrika Aizkorbera iritsi baino lehen, Ultzama aldean ibiliko da, Muskiz, Zia, Aginaga, Gulina... tarte horretan hartzen ditu km asko, berez Sakanarenak ez direnak, baina sakandarrek korrituko ditugunak. Horregatik aurten kilometro gehiago ditugu, 71 km gutzira, eta 3 kilometro falta zaizkigu saltzeko. Norbaitek erosi nahi badu gugana jo dezala, Sakanako Itsasi euskaltegira.

6 Makina bat kultur ekitaldi antolatzen dira Korrika Kulturalaren barruan. Asko izanen al dira gurean?

Momentuz, Olaztin bi kultur ekitaldi daude lotuta eta Etxarri Aranatzan bat. Orain arte Santa Agedak eta ihoteak izan dira eta hemendik aurrera hasiko da jendea Korrikaren inguruan gehiago inplikatzeko. Beraz, gero etorriko dira ekitaldi gehiago. Olaztin apirilaren 5ean Xabi Bandini musikariaren kontzertua izanen dugu, 22:30ean Kultur Etxean, eta, apirilaren 7an Txan Magoa etorriko da Olaztira,

17:00etan. Etxarri Aranatzan martxoaren 31an irrintzien inguruan landutako *Erraiak* dokumentalaren aurkezpen-solasaldia izanen da.

7 Korrika Txikiak ere antolatzen dira herriz-herriz.

Bai, ia herri guztietan antolatzen dira. Arbizon, Uharteko Arakilen eta Ihabarren apirilaren 6an ospatuko dira Korrika Txikiak, Lakuntzan apirilaren 8an, eta Bakaikun eta Iturmendin ere bai. Aurten Bakaikun hasi eta Iturmendin bukatuko dute, apirilaren 8an. Oraindik herri asko daude lotu gabe, baina garaiz gabiltza.

8 Ikastetxeek ere euren Korrika Txikiak egiten dituzte, ezta?

Bai, eta oso politik izaten dira. Ikastetxeak ari dira euren Korrika Txikiak antolatzen. Bihar (asteazkena) bilera dugu Altsasuko ikastetxeekin, ea denen artean elkarrekin Korrika Txikia egin dezakegun aztertzeko, data eta beste adosteko.

9 Petoak eta Korrika materiala non eros daiteke?

Sakanako Itsasi euskaltegian, Altsasan, materiala dugu salgai.



Aitor Irigoien Irigoienek Korrikaren aldeko ekitaldietan parte hartzeko deia egin du.

10 Baina herrietan, Korrika Txikiak eta Korrikako ekitaldietan ere izaten da materiala erosteko aukera, ezta?

Bai, herrietako Korrika batzordeak antolatzen dira materiala hartu eta herrietan saltzeaz. Dena den, norbaitek Korrikako materiala bere herrian saldu nahi badu, euskaltegira dei dezala lasai asko eta beharrezkoa den materiala emango diogu saltzeko. Korrika afaria dela, Korrika Kulturala, Korrika Txikia edo dena delakoa, materiala eska daiteke. Pixkanaka Korrikako

data hurbiltzen ari da eta ekitaldi gehiago antolatuko dira.

11 Sakandarrak Korrikan parte hartzerantz inplikatu ditugu?

Jakina! Korrikaren alde egiten diren ekitaldietan parte hartzerantz animatu nahi ditugu sakandarrak, eta herriren batean ekitaldirik prestatu ez bada eta norbaitek Korrikaren alde zerbait egiteko interesa badu -afari bat, hitzaldi bat, Korrika Txikia, dena delakoa...- anima daitezela. Guk beharrezko laguntza guztia emango diegu.

BAZKIDE ZOZKETA

OTSAILEKO SARIAK:

1. SARIA:

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA: 2 SARRERA
EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN
EREIN: ARGITALETXEAREN LIBURU BAT

2., 3. ETA 4. SARIA:

ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN
EREIN: ARGITALETXEAREN LIBURU BANA



Ekain berri



CAMPING ARTAZA

